

Ikastetxetan haurren ongizatea eta babesa sustatzeko lan-tresnak



Koordinazioa:

UNICEF

Óscar Belmonte Castell Amanda Martín Rivas
Almudena Olaguíbel Echeverría -Torres
Influentzia, Programa eta Aliantzen Zuzendaritza UNICEF Espainia
www.unicef.es/educa

British Council

Chus Pérez Crespo Sonja Uhlmann
British Councilen Safeguarding Taldea (Haurren eta Helduen Babesa)
www.britishcouncil.es
www.britishcouncilschool.es

Laguntzailea:

Eva Fumagallo

Parte-hartzailea:

PORTICUS

Editorea:

British Council Espainia
Paseo General Martínez Campos 31. Madril 28010. Espainia
ISBN: 978-84-128364-4-8

Diseinu grafikoa:

Rex Media, SL

Argazkiak:

© British Council

Madril, 2024ko apirila

British Council erakundeak konexioak, elkar ulertzea eta konfiantza sustatzen ditu Erresuma Batuko eta Espainiako biztanleen artean, artea, kultura, hezkuntza eta ingelesa oinarri hartuta. Gure jardunean artatzen ditugun haur guztien ongizatea babesteko funtsezko betebeharra aitortzen dugu, indarkeria eta/edo abusu guztiak prebenituz eta haurrak babestuz. Horretarako, haurrak babesteko lege britainiarrak eta gure jarduna hartzen duten herrialde guztietakoak betez jarduten gara. Halaber, Nazio Batuek 1989an onartu zuten Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (HEK) ere irmoki defendatzen dugu.

Mundu osoko gure langile guztiek erakundearen **Haurrak Babesteko Politika** nahitaez bete behar dute. Xede hauetarako, langile dira soldatapekoak zein soldatarik jasotzen ez dutenak, lanaldi osoa zein partziala dutenak, erakundeak zuzenean kontratatatu dituenak zein administrazio-kontseiluko kideak, kontratistak, azpikontratatuak langileak, aholkulariak, boluntarioak, praktiketako langileak eta erakundearen izenean ari diren langile guztiak. Gure iritziz, haurrak babestu ahal izateko bakoitzak bere erantzukizuna hartu behar du.

Aurkibidea

British Councilen hitzaurrea	5
UNICEF Espainiaren hitzaurrea	6
Sarrera	8
Indarkeria eta arriskua eta beren esanahia haurtzaroaren garapenean	9
Ingurune seguruak eta babesleak sortuz	12
Zer da ongizateko eta babeseko eginkizunaren koordinazioa.	14
Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearen jardueraren ildoak eta lan-tresnak	18

1. Lehen mailako prebentzioa	19
● 1. Jarduera-ildoak: Erakundearen konpromisoa handitzea	21
1.1 lan-tresna: Ongizatearekiko eta haurren babesarekiko konpromisoari buruzko erakundearen adierazpenerako eredua	21
● 2. Jarduera-ildoak: Arriskuak identifikatzea	23
2.1 lan-tresna: Haurtzaroko arriskuen inguruko INJUCAMen mapa	23
2.2 lan-tresna: Arriskua eta inpaktua. Probabilitate eta inpaktuaren arteko interrelazioa	24
● 3. Jarduera-ildoak: Jarduerak Urteko Plangintza Orokorrean txertatzea	26
3.1 lan-tresna: Ongizate eta babesari loturiko jarduerak planifikatzea.	26
● 4. Jarduera-ildoak: Etengabeko prestakuntza haurren babesaren arloan	27
4.1 lan-tresna: Ongizatearen eta babesaren kultura hezkuntza komunitatean bultzatzeko aurkezpena.	27
● 5. Jarduera-ildoak: Jardueretarako prozedura seguruak definitzea	29
5.1 lan-tresna: Planifikatu beharreko prozedurak identifikatzeko fitxa	29
5.2 lan-tresna: Jarduera zehatz bati loturiko arriskuak aztertzea: txangoak, ikastetxeko sarrera eta irteerak	31

2. Bigarren mailako prebentzioa 37

● 6. Jarduera-ildoak: Detekzio goiztiarra 39

6.1 lan-tresna: Entzute-gune bat sortzeko gakoak 40

6.2 lan-tresna: Haur edo nerabeen testigantza zuzena jasotzeko gida 41

● 7. Jarduera-ildoak: Barneko koordinazio-sare bat sortzea 43

7.1 lan-tresna: Esku-hartzea eskatzen duten egoerak barne-mailan komunikatzeko fitxa 43

7.2 lan-tresna: Komunitate-sareko bitartekoak eta programak mapatzea 44

● 8. Jarduera-ildoak: Kasuak kudeatzea: informazioa biltzea 48

8.1 lan-tresna: Esku-hartzeak planifikatzeko fitxa 48

8.2 lan-tresna: Ikasleak elkarriketatzeko eredua 50

8.3 lan-tresna: Familia elkarriketatzeko eredua 53

● 9. Jarduera-ildoak: Aginte eskudunei jakinaraztea 56

9.1 lan-tresna: Gizarte Zerbitzuei jakinarazteko eredua 56

3. Hirugarren mailako prebentzioa 58

● 10. Jarduera-ildoak: Ikasleentzako laguntza 60

10.1 lan-tresna: Laguntza-plana 60

10.2 lan-tresna: Birbiktimizazioa eta estigmatizazioa ulertzeko eta ekiditeko gida 61

● 11. Jarduera-ildoak: Koordinazioa beste erakunde publiko batzuekin, jarraipena ziurtatzeko 63

11.1 lan-tresna: Kanpo-koordinazioko fitxa 64

Epilogoak 66

Erreferentziak 66



British Councila Espainian zuzentzen nuenean, nire eginkizunetako bat zen haurrak babesteko gure politikaren gauzatze eta garapen egokia zuzenean bermatzea, bai eta horren ondoriozko prozeduren betetzea ziurtatzea ere. Are gehiago, aurreko hori erakundeak diseinatu eta eskaintzen dituen jarduera guzti-guztietan bete izanaren azken erantzulea (accountable) naiz. Hori guztia “neketsutzat” har daiteke, askotan, denborari eta/edo bitartekoei dagokienez, erakundearentzat zein bertan lan egiten duten langileentzat, baina erakunde gisa hartu genuen konpromisoari erantzuten dio: Zero Tolerantziako Politika bat gauzatzea haurren aurkako indarkeria- eta/edo abusu mota guztien aurrean.

Argi eta garbi daukat egoera mota hauek gertatzen direla, besteak beste, inguruneak ahalbidetzen dituelako. Horrenbestez, beste aldera ez begiratzeko konpromiso pertsonala eta profesionala hartu dut. Haurrak babestea guztion ardura da —eta izan behar du—. Era berean, haurraren interes gorena babestea gure jardueren funtsezko ardatza izan behar du.

Nire eskarmentuak erakutsi didanez, ikastetxe batean indarkeriari aurre egiteko lehen urratsa ez da indarkeria erabili dutenekin edo jasan dutenekin zuzenean esku hartzea, baizik eta ingurune hori erabiltzea egoera horretaraino iristeko probabilitateak murrizteko. Gure lehen begirada, babesaren arlotik,

haur eta nerabeak eta beren garapena hartzen dituzten espazioetan jarri behar dugu. Gure lehen ekintzak, bestalde, aipatuak espazio babesleak, tratu onekoak eta indarkeriak gabekoak bihurtzeko neurriak abiaraztea izan behar du.

Ikastetxea, zentzu horretan, pribilegiozko eremua da haur eta nerabeek denbora asko igarotzen baitute bertan. Ezin da, ez genuke ikastetxeek duten babes-eginkizuna gutxietsi behar.

Azken urteotan, UNICEFekin proiektu ezberdinetan lan egiteko zortea izan dugu eta ohore bat da, niretzat, gure zentroetan bertan azken 10 urte luzetan gauzatu den lan praktikoa horren isla den “erreminta-kutxa” honetako hitzaurrea idatzi ahal izatea.

Gure helburu eta balioekin bat eginez, horren bidez konexioak, elkar ulertzea eta konfiantza sortu nahi dugu Erresuma Batuen eta Espainiako ikastetxeen artean, bai eta elkarrekin lan egin ere guztiontzako eta, bereziki, haurrentzako eta nerabeentzako hobe izango den mundu bat eraikitzeko.

Mark Howard.

Former Country Director British Council Spain



Gazteekin eta eskola-ingurune batean lan egitea pribilegio bat da. Ikasleen garapen akademiko, sozial eta emozionalaren parte integrala gara, garapen hori bultzatzen dugu eta familiek beren konfiantza guztia gure erakundeengan ipintzen dute. Onartu eta gure egunerokotasunean aintzat hartzen dugun erantzukizun handi bat da hori. Gure politika eta prozeduretan eta guztiontzako garapen-planetan ere presente dago, noski.

Eta hori guztiaren oinarria da haur eta nerabeen ongizatea sustatzeko gure konpromiso irmo eta kontziente. Konpromiso horren abiapuntua da

prebentzioa, detekzioa eta esku-hartzea arrisku-, abusu- edo kalte-egoera guztien aurrean. Kultura bat ezartzea, non denek lan egingo dugun ongizate-mailarik gorenena bermatuko dituzten baldintzak sortzeko; eta non, halaber, adi eta prest egongo garen arrisku-zantzurik txikiaren aurrean ere esku hartzeko.

Hautzaroa eta nerabezaroa funtsezkoak dira garapenerako eta, une horietan, ongizateak guztion jarduna gidatuko duen funtsezko ardatza izan behar du.

Mercedes Hernández Estrada.

Head of School British Council School.





Indarkeria pairatzeak ondorio larriak ditu haur eta nerabeen garapen pertsonalean, sozializazioan eta hezkuntza-prozesuan. Baina, haurren aurkako indarkeriak azpierreregistro-maila altuak ditu. Izan ere, biktima guztiek ez dute jasotako eraso salatzen eta, gainera, zenbait indarkeria mota normalizatu eta, ondorioz, ikusezin egiten dugu.

Ez dago ikasterik seguru sentitzen ez bagara edo izututa bagaude eta seguru sentitzen garga inguruko pertsonen gu zaintzeko gogoia, jakintza eta gaitasuna dutenean. Hezkuntzak protagonismo berezia izan behar du indarkeria —kideek zein helduek gauzatzen dutena— prebenitzeko lanean, bere detekzio goiztiarrean, ikaskuntza-testuinguru fisiko eta birtualetan, eta ingurune babesleen sorreran.

Eskolaren babes-eginkizuna funtsezko ekarpena da haurren garapenerako. Ikastetxean ingurune babesle bat eraikitzea hezkuntza-eginkizunari ezinbestean lotua dagoen erantzukizun bat da eta sektore ezberdinetako profesionalen ekintza adostu eta bateratu bat eskatzen du. Eta begirada zabalago bat ere bai. Gakoa ez da ikastetxean gertatzen dena, ikastetxeko haurrei gertatzen zaien baizik.

Ikastetxeek konektatuta egon behar dute, eta era bateratu eta koordinatuan jardun behar dute beste profesional batzuekin batera. Beren betebeharra ez da gizarte zerbitzuak, osasun-zerbitzuak edo segurtasun indar eta kidegoak bezalako beste administrazio edo erakunde batzuk ordezkatzeko edo horien eskumena diren eginkizunak betetzea. Egin behar dutena da beren jardura aurrekoekin koordinatu eta, beren eskumenen barruan, haurrak pairatzen ari diren indarkeria-egoerak edo beren ongizaterako arriskuak detektatzeko eta horiei modu egokian erantzuteko prest egon.

Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean Babesteko Lege Organikoak (LOPIVIK) Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearen irudia sortu zuen eta pertsona horrek funtsezko erronka bat dauka: beren babes-

eginkizuna betetzeko ikastetxeek dituzten gaitasunak sendotzea, biltzea eta koordinatzea. Horretarako, baina, hezkuntza-arloko agintariek, nahitaez, arintasunez eta era koordinatuan eta beren eskumenen barruan jardun eta beharrezko bitartekoak mobilizatu beharko dituzte ekintzak bultzatzeko funtsezko ondoko hiru arloetan:

- Arlo normatiboan: Eginkizun eta baldintza egokiak garatuz Ongizateko eta Babeseko Koordinatzaileek beren eginkizuna bete dezaten. Beren lana ezin daiteke norbanakoaren nahiaren eta gaitasunen mende egon.

- Heziketa eta laguntzaren arloan: Lan orokorra eginez hezkuntza-komunitate osorako eta heziketa espezifikoak eta gaitzailea eskainiz koordinazioaz arduratuko diren pertsonen. Horrez gain, laguntza-unitateak ere egongo dira eskuragarri erronka bereziki zaila suposatzen duten eta trebezia eta jakintza espezifikoak izatea eskatzen dituzten egoerez arduratuko diren hezkuntza departamentuetako profesionalentzat.

- Datuen arloan: LOPIVIK aurreikusten duen Haur eta Nerabeen aurkako Indarkeriari buruzko Informazio-erregistro Nagusia abiaraziz. Horren bidez, biktimak nahitaez kaltetzen dituzten deskoordinazioak saihestuko dira, bai eta arazoa dimentsionatu eta horren inguruko jakintzan sakondu ere.

UNICEF Espainiatik, indarkeriaren aurrean ikastetxeek emango duten erantzun instituzionala sendotzeko xedearekin lan egiten dugu, babes-faktoreak garatuz ikastetxeetan bertan (Haurren Eskubideen inguruko Erreferentziako Ikastetxeen programaren bidez); udalerrietan, komunitate-zerbitzuak sendotuz haurren aurkako arrisku-egoerak identifikatzeko eta gutxitzeko; eta Polizia Nazionalari lagunduz indarkeria ikastetxetan prebenitzeko helburuarekin egiten duen lanean.

Beste erakunde, aditu eta aliatu batzuekin egiten dugun sare-lanaren xedea da haurren eskubideak hezkuntza-arloan integratzea eta indarkeria prebenitzen eta lantzen laguntzea. Horretarako, Ongizateko eta Babeseko



koordinatzailearen irudia bultzatuko dugu heziketa-ekintzen bitartez; bai eta bere lana erraztuko duten lan-tresnak garatuz ere.

Dokumentu hau lankidetzaz horietako baten fruitu da. UNICEF Espainiak British Councilekin batera lan egin du lan-tresna hau garatu eta hezkuntza-komunitatearen eta, bereziki, Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileen esku uzteko. Pertsona horiei guztiei, haurren ongizate, zaintza eta babesarekin duten konpromisoa eskertu nahi diegu.

“Erreminta-kutxa” deritzogun dokumentu honek beren lanaren garapena erraztuko duelakoan gaude.

Haurren babes integralaren alde elkarrekin lan egiteko eskaini digun aukera eskertu nahi diogu British Councili. Amaitzeko, hezkuntza-sisteman Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearen irudia txertatzen laguntzeko UNICEF Espainiak hartu duen konpromisoa berretsi nahi dugu: haur eta nerabeek indarkeriarik gabe, ingurune seguru eta babesletan bizitzeko eta ikasteko duten eskubidea bermatzea.

Jose María Vera.

UNICEF Espainiako Zuzendaria



Sarrera

Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Erabat Babesteko 8/2021 Lege Organikoak, ekainaren 4koak, paradigma aldaketa bat suposatzen du haurren aurkako indarkeari aurre egiteko, beren bizitzako ingurune guztietan, ikastetxean barne. Legeak prebentzioa eta haurren eskubideak erabat babestuko dituzten inguruneen sorrera lehenesten ditu. Sektore ezberdinen erantzukidetasuna azpimarratzen du, prebentzioari zein erantzun eraginkorrari dagokienez eta, horrenbestez, administrazio publikoetako sektoreen artean eta horien barruan koordinazioa eta artikulazioa bermatuko dituzten mekanismo sistematikoak ezartzera behartzen du indarkeria prebenitzeko eta goiz identifikatzeko, laster esku hartzeko, biktimak babesteko eta onbideratze-prozesuan laguntzeko.

Aurretik, eta garrantzi handia duelarik oraindik, 1/1996 Lege Organikoak, urtarilaren 15ekoak, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoak, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatu zituen eta adingabe guztiak babesteko esparru juridiko bat eraiki zuen familiak, hezkuntza-inguruneak eta botere publikoak eta beste hiritar guztiak erlazionatzen dituzten orotariko erakundeak inplikatu. Haurrak eta nerabeak beren bizitzako subjektu aktibo gisa osoki aitortu zituen.

Horrez gain, adingabe baten arrisku- edo babesgabetasun-egoeraren bat detektatu duen edonoren betebeharrak arautu zuen: laguntza

eskaintzeko eta aginte eskudunak jakinarazteko betebeharrak, alegia. Arriskuaren kontzeptua eta balizko adierazleak definitu zituen eta eragiten dieten erabakiei dagokienez entzunak izateko haurrek duten eskubidea argiro ezarri zuen.

2021eko lege organikoak Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearen irudia sortu zuen. Irudi hori oso aurrerapauso handia da haurrek eta nerabeek ikastetxetan eta horietatik at indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidea bermatzeko, bai eta beren ongizatea bermatzeko xedearekin era goiztiarrean esku hartu ahal izateko ere. Haren ezarpena pauso berri bat da hezkuntza-sistamarako eta abagune paregabea ikaskuntza eta ongizate fisiko eta psikologikoa eta ikastetxeek, beren eskumenen barruan, indarkeria-, abusu- edo arrisku-egoera guztiak prebenitzea eta aipatuei erantzutea xede izango duten inguruneak ezartzeko duten gaitasun instituzionala sendotzeko.

Hezkuntza-arloko Espainiako legediak Ongizateko eta Babeseko koordinatzaile bat izendatzeko ikastetxe guztiek duten betebeharrak arautu du dagoeneko, arlo honetako administrazioek orain garatu beharko duten esparru arauemaile bat ezarri. LOE legea aldatzen duen Lege Organikoak (LOMLOE), 66. artikulua bakarrean, 5. atala gehitu dio LOEaren 124. artikuluari. Horren arabera, hezkuntza-arloko administrazioetako ardura da





esku hartzeko protokoloak arautzea eskola-jazarpen, ziberjazarpen, sexu-jazarpen, genero-indarkeria edo beste edozein indarkeria-adierazpenaren zantzuak dauden kasuei dagokienez. Bai eta ikastetxe guztiek, beren titulartasuna edozein dela ere izendatu behar duten Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileak bete beharko dituen baldintzak eta eginkizunak ezartzea ere.

UNICEF Espainia, British Council eta British Council School erakundeekin batera, erantzukizun hori sistematizatzen eta abian jartzen lagunzen ari da. Ardura hori profesional batek koordinatu beharko du ikastetxean, gomendioak eginez haren eginkizunen artikulazioari, izendatzeari, prestakuntzari eta bitartekoak hornitzeari buruz. Halaber, adieraziko du zer baliabide behar diren indarkeria prebenitzeko eta horri aurre egiteko sektoreak eta ikastetxeek duten gaitasuna hobetzeko eta ikasleak ingurune babesle batean garatzea bultzatzeko.

Gida hau konpromiso horretan kokatzen da eta bere xedea da lan-tresna praktikoak eta bitartekoak partekatzea Ongizateko eta Babeseko kultura baten koordinazio-lana bultzatzeko eta ikastetxeko profesionalekin babes gaitan eta osasun-, aisialdi- edo kirol-arloa bezalako beste batzuetan ere eskudunak diren ondoko administrazio publikoekin batera, besteren artean, gauzatuko duen esku-hartze adostua bermatzeko: gizarte-zerbitzuak, osasun-arloa, eta segurtasun indarrak.

Ikastetxetan ongizatea eta babesa sustatzea xede duten ekintzen arrakastak ezin du koordinatzaile izendatuak izan diren pertsonen gaitasunen, nahiaren eta

konpromiso pertsonalaren mende egon. Administrazio eskudunen ardura da eginkizun horiek beteko dituzten profesionalei beharrezko baldintza instituzionalak ematea beren eginkizunak bete ahal ditzaten eta beren lanak ahalik eta eraginik handiena izan dezan ikastetxera egunero bertaratzen diren haurrek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidearen bermatzean.

Ikasleen ongizatea sustatzeak eskola-komunitate osoaren esfortzu bateratu bat eskatzen du, ongizate-mailarik altuena bultzatzen, arrisku-egoerak detektatzen eta uneoro era prebentiboan jarduten lagunduko duten jarduerak antolatuz.

Gidak esparru kontzeptuala lantzen du haurren aurkako indarkeria, abusua eta beren ongizaterako arriskua prebenitzeko eta haurrak babesteko. Horrez gain, 8/2021 Lege Organikoak zehazten dituen Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearen eginkizunak artikulatzeko proposamen bat ere egiten du, eginkizun horiek prebentzioaren hiru mailen arabera antolatuz: lehen, bigarren eta hirugarren maila. Honela, irudi horren eginkizunak era egituratuan azaldu nahi dira. Hiru maila horietako bakoitzak jarduera-ildo nagusiak deskribatzen ditu, bai eta tresna eta bi motako (kontsultarako eta txantiloia) bitarteko ezberdinak proposatu ere. Kontsultarako tresnen xedea da haurren babesarako funtsezkoak diren kontzeptuen eta prozesuen asimilazioa erraztea. Txantiloiek inspirazio-iturri izan nahi dute dagokion ikastetxeak barnera ditzan; horrenbestez, materiala horiek ikastetxearen testuinguru eta egoera berezira egokitu beharra dago.



Ongizatea eta babesa koordinatzeko eginkizuna 2021eko lege organikoan arautzeak aurrerapauso handia suposatu du haurrek ingurune segurua eta tratu onekoa eduki dezaten beren ikastetxean.

Indarkeria eta arriskua eta beren esanahia haurtzaroaren garapenean

Haurrek eta nerabeek indarkeria edo abusuak pairatzen dituzte ohikoenak dituzten inguruetan: familia, eskola, sare sozialak eta beste ingurune birtual batzuk, komunitatea eta kirol- eta aisialdi-jarduerak. Errealitate horrek beren garapena eta ongizatea kaltetzen du, beren eskubideak urratzen ditu eta gizartean oro har eragiten duten kostu sozialak eta ekonomikoak ditu. Indarkeria eta abusua prebeni daitezke; eta onartezinak dira. Horrenbestez, garapenean kalteak —norberaren ekintzen zein hirugarrenen jarduteen emaitza izan daitezke— sufritzeko duten arriskua minimizatzeko helburuarekin jarduteko betebeharra ere daukagu. Lehenik, indarkeriaren kontzeptuan sakondu beharra dago. Indarkeriak zenbait osagai biltzen ditu: kaltea, boterearen abusua (erabilera okerra) eta modua (Horno et al., 2021).

Kalteaz hitz egiten denean kaltearen teoria aipatu ohi da, pairatutako kaltearen eta hautemandako kaltearen arteko ezberdintasun argi batetik abiatuta. Lehen da pertsonak pairatu duen benetako kaltea; bigarrena, berriz, gertatutakoaz biktimak duen hautemate edo inpresioa. Indarkeriaz hitz egin ahal izateko, kalteaz aparte, beste osagai bat ere kontuan hartu behar dugu. Izan ere, “kalteak sortzen dituzten egoera guztiak ez dira indarkeria: gaixotasun edo hondamendi batek kalte handiak ekar ditzake eta, halere, ez du zertan indarkeria izan behar” (Horno et al., 2021, 18. orr.).

Beraz, kalte bat indarkeriatzat jo ahal izateko, boterearen abusua (erabilera okerra) ere kontuan hartu behar dugu. Boterea bera neutroa da; ematen zaion erabilerak ekar dezake indarkeria. Horrexegatik, zeharo ezberdina da boterea era konstruktiboan edo era hondagarrian erabiltzea. Boterea ez dago pertsonarengan, harremanean baizik; baliteke pertsona batek botere handia izatea harreman batean, eta inolako botererik ez beste batean. Haurrei dagokienez, beren harreman gehienak boterezkoak dira eta, oro har, boterezko harreman horiek helduekin dira (Horno et al., 2021). Azken osagaia indarkeria gauzatzeko modua da: fisikoa, psikologikoa, sexuala edo zabarkeriaren ondoriozkoa izan daiteke.

Osasunaren Mundu Erakundeak honela definitzen du haurren aurkako indarkeria: “18 urtetik beherako

pertsona batean eragin dezakeen edozein abusu- edo zabarkeria-forma, tratu txar fisiko edo afektibo, abusu sexual, zabarkeria, zaintza eza edo merkataritza-izaerako edo beste edozein izaerako ustiapen guztiak hartzen barne hartzen dituen, adingabearen osasuna, garapena edo duintasuna kaltetu edo bere biziraupena arriskuan jartzen bada ardura, konfiantza edo boterezko harreman baten testuinguruan” (OME, 2022).

8/2021 Lege Organikoak Haurren Eskubideei buruzko Batzordearentzako gomendioak biltzen ditu 13. Oharpen Orokorrean eta indarkeriaren definizioan tipologia zabal bat aurreikusten du:

“... Indarkeria da adingabeen eskubideak eta ongizatea urratu eta, beren garapen fisiko, psikiko edo soziala mehatxatzen duen edozein ekintza, omisio edo zabarkeriazko tratua, aipatutakoa gauzatzeko era edo bitartekoa edozein izanda ere. Definizio horrek barne hartzen du informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez eragindako indarkeria, bereziki indarkeria digitala. “Nolanahi ere, tratu txar fisiko, psikologiko edo emozionaltzat hartuko dira zigor fisikoak, iraingarriak edo laidogarriak, arduragabekeria edo zabarkeriazko tratua, mehatxuak, irainak eta kalumniak, esplotazioa, indarkeria sexuala barne, haur-pornografia, prostituzioa, eskola-jazarpena, jazarpen sexuala, ziberjazarpena, genero-indarkeria, mutilazio genitala, edozein xede duen gizakion salerosketa, behartutako ezkontza, haurren ezkontza, pornografia ikustera behartzea, estortsio sexuala, datu pribatuen hedatze publikoa, bai eta prebeni daitekeen indarkeriazko edozein jokabidea beren familia-eremuan”. (8/2021 Lege Organikoa, 1.2 artikulua)

Indarkeria eta abusua prebeni daitezke; eta onartezinak dira. Eragin larriak dituzte haurraren garapenean.



Bestalde, arrisku-egoerak Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoak (1/1996 Lege Organikoa) biltzen ditu eta definizioa ondokoa da: “familia-, gizarte- edo hezkuntza-inguruabar, -gabezia edo gatazken ondorioz adingabearen garapen pertsonala, familiarra, soziala edo hezkuntza-izaerakoa, ongizatea edo eskubideak kaltetzen dituen egoera” (1/1996 Lege Organikoa, 17. artikulua).

Ikastetxera bertaratzen diren hurrek eta nerabeek beren garapenean eragina duten egoera ugariei aurre egin behar diete. Egoera horiek hezkuntza-ingurunearen barruan edo horretatik at gerta daitezke. Egoera bakoitzari era zehatzean erantzutera behartuta dago ikastetxea. Ikastetxearen esku-hartzea eskatzen duten egoeretako zenbait familian, eskolan edo gizartean jazotako egoeren ondorio dira: tratu txarrak, indarkeriazko diziiplina, zabarkeria, abandonua, banantze gatazkatsuak, genero indarkeria, indarkeria bikarioa, indarkeria sexuala, jazarpena eta ziberjazarpena, gorroto-delituak edo indarkeriazko gaizkile-talde bateko kide izatea. Halaber, adingabearen ongizatea arriskuan jar dezaketen egoerak ere daude: desoreka emozionalak, osasun mentaleko nahasmenduak, gabezia ekonomiko larriak, babesik ez izatea familiarren edo erakundeen aldetik, menpekotasunak edo tentsioak komunitatean, besteak beste.

Indarkeria- edo arrisku-egoera baten ondoriozko kalteren bat edo horren ondorioak pairatzeko aukerak handitzen dituzten faktore batzuk daude; arrisku-faktoreak, hain

zuzen ere. Gainera, haurren eta nerabeen ongizatean eragiten duten faktore horien eragina arindu daiteke, babes-faktoreen bitartez. Arrisku- eta babes-faktoreak barnekoak zein kanpokoak izan daitezke. Lehenak haurrak berezkoak dituen ezaugarri ezberdinei lotuta daude eta, bigarrenak, aldiz, haurraren garapena hartzen duen inguruneari (gurasoak, zaintzaileak, eskola-ingurunea, komunitatea).

Biziki garrantzitsua da babes-faktoreak izatea edozein haurraren bizitzan. Babes-faktore horiek egokiak eta kalitatezkoak badira, pairatu dituzten egoera kaltegarrien inpaktua arintzen lagunduko dute. Zenbat eta handiagoak edo erabakigarriak izan arrisku-faktoreak, are eta larriagoa izan daiteke pairatutako indarkeriaren edo tratu txarren inpaktua. Arrisku- eta babes-faktoreak ezagutzeak informazioa eskaintzen du eta informazio hori prebentzioa edo esku-hartzeko estrategiak definitzeko eta ebaluatzeko erabil daiteke. Eskola-ingurunea babes-faktore izan daiteke, eta izan behar du, indarkeriaren aurrean, haur guztientzat. Halaber, kalteen murriztean ere lagundu behar du. Ikastetxe bat hobeto prestatuta dago babes-faktore gisa jarduteko, bertako irakasleak indarkeriaren prebentzioan duten erantzukizunaren kontziente badira, indarkeria era goiztiarrean detektatzeko gaitasuna badute eta hari aurre egiteko barne-mailako antolakuntza eta kanpoko lankidetzak eta koordinazio-sare baten laguntza baldin badute, gehienbat esku-hartze hori ikasleen ongizatea bultzatzeko jarduerekin osatzen bada.

Ingurune seguruak eta babesleak sortuz

Haurrek eta nerabeek funtsezko eskubidea dute indarkeriarik eta arriskurik gabeko ingurunetan hazi, ikasi eta garatzeko. Aurreko hori garrantzi handiko baldintza bat da, halaber, beren potentzial maximora irits daitezen eta beren beste eskubide guztiez disfrutatzeko aukera izan dezaten.

1989ko Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren (HEK) 19. artikulua ondokoa dio: "Estatuek legegintza-, administrazio-, gizarte- eta hezkuntza-neurri egoki guztiak hartuko dituzte, haurrak babesteko kalte edo abusu fisiko nahiz mental, arretarik eza edo zabarkeriazko tratatu, tratatu txar edo esplotazio mota ororen aurka, sexu-abusua barne".

HEKren agindu hori, Espainian, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituen urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak jaso du; izan ere, ondoko helburua zehazten du: "... Botere Publiko guztiak, adingabeei bereziki lotuta dauden erakundeak, gurasoak eta ahaideak eta, orokorrean, hiritarrak lotuko dituen babes-esparru juridiko zabal bat eraikitzea".

Duela gutxi eta Haurren Eskubideen Batzordearen gomendioei jarraiki, Espainiak ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa onartu zuen, haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteko (8/2021 Lege Organikoa).

Legeak ondokoa dio: "Haurren aurkako indarkeriaren kontra borrokatzea giza eskubideen agindu bat da. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak zehazten dituen haur eta nerabeen eskubideak sustatzeko, funtsezkoa da beren giza-duintasuna eta osotasun fisiko eta psikologikoa ziurtatzea eta bultzatzea, indarkeria-era guztien prebentzioaren bitartez".

8/2021 Lege Organikoaren azken xedea da "... Haurrek eta nerabeek beren osotasun fisiko, psikiko, psikologiko eta morala edozein indarkeria-eraren aurrean defendatua izan dadin dituzten funtsezko eskubideak bermatzea, beren nortasunaren garapen askea ziurtatuz eta erabateko babeseko neurriak ezarriz. Neurri horien artean daude sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzio goiztiarra, babesa eta kaltearen onbideratzea, beren bizitzaren garapena hartzen duten eremu guztietan". (8/2021 Lege Organikoa, 1.1 art.)

Lege-esparru berri honek aurrerapauso handia suposatzen du, bai eta abagune bat ere ikastetxetara bertaratzen diren haurrek eta nerabeek babes hobea izan dezaten edozein indarkeria motaren aurrean, beren bizitzako eremu guztietan. Biktimak artatzeak esan nahi

du berandu iritsi garela; nahitaezkoa da esfortzu esplizitu handiagoak egitea indarkeria ekiditeko.

8/2021 Lege Organikoak paradigma-aldaketa bat ekarri du haurrek eta nerabeek sektore publiko guztietan, hezkuntza-arloan barne, indarkeriarik gabeko bizitza bat bizitzeko duten eskubidea jorratzeko erari dagokionez:

1. Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari erantzuten dio indarkeria hori gerta daitekeen inguruneak aintzat hartuz: ikastetxea, familia, komunitatea, eremu digitala, aisialdi- eta kirol-espazioak eta babes- eta justizia-erakundeak.

2. Prebentziozko ikuspegi bat lehenesten du. Honela, indarkeria eta horrek dakarren kaltea ez gertatzeko lan egingo da eta ez bakarrik, biktima izan diren adingabeak artatzeko. Profesionalen eta haurren beren sentsibilizazioa, informazioa eta heziketa ezinbesteko prebentzio-ekintzak dira, indarkeriaren ikusezintasun-, justifikazio- eta ukatze-arriskua murrizten baitute.

3. Babes-ikuspegi integral bat barneratzen du; hau da, haur guztiek eskubide berdinak dituzte, ingurune guztietan, beren inguruabarrak edozein direla ere eta, horrenbestez, neurri guztiak hartu behar dira indarkeriarik paira ez dezaten, indarkeria goiz detektatzeko, indarkeriaren aurrean egokiro esku hartzeko, haurrak babesteko eta justizia jasotzeko eta beren kaltea onbideratua izan dadin duten eskubidea bermatzeko. Ondorioz, betebeharrak eta neurri zehatzak ezartzen ditu esku-hartze maila guztietan: sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzio goiztiarra, berehalako esku-hartzea, laguntza eta errehabilitazioa.

4. Ikuspegi integral horrek, halaber, indarkeriak dimentsio anitz dituela aitortzen du, eta sektore ezberdinen arteko esku-hartze koordinatu bat eskatzen du. Hartara, administrazio ezberdinen parte-hartzea eskatzen du, beren inplikazioa funtsezkoa baita bilatutako helburua lortzeko. Eta ondokoak bezalako eremu oso ezberdinetako profesionalei dei egiten die: osasuna, hezkuntza, polizia, justizia, gizarte zerbitzuak eta kirolak. Sektore eta administrazio-maila ezberdinek komunikazio-, lankidetzak- eta koordinazio-mekanismo sistematikoak ezarri behar dituzte elkarren arteko esku-hartze bat bermatzeko prebentzioari, detekzio goiztiarrari, berehalako esku-hartzeari eta indarkeriaren biktima izan diren haurren zaintzari eta osatzeari dagokienez.

Haurrek beren bizitzako hein handi bat ikastetxean igarotzen dute eta, bertan, funtsezko gaitasunak eta ezagutzak bereganatzen dituzte.

Ikastetxea, halaber, gune oso garrantzitsua da kideekin

sozializatu ahal izateko. Funtsean, haurren garapena ardazten duen gune bat da ikastetxea eta aukerak eskaintzen ditu desberdintasunak konpentsatzeko, haurren garapenerako dauden arriskuak detektatzeko, prebentziorako eta babes-ekintzetarako.

8/2021 Lege Organikoak berariaz aipatzen du haurrei eta nerabeei ikasteko ingurune seguruak eta babesleak eskaintzeko hezkuntza-arloak duen erantzukizuna:

“Ikastetxeek eta aisialdiko zentroek, bai eta adingabeak bizilagun dituzten establezimenduek ere, beharrezko neurri guztiak hartu beharko dituzte haurren eta nerabeen babesa eta segurtasuna bermatzeko...” (8/2021 Lege Organikoa, 20. art.).

Haurrentzako seguru eta babeslea izango den ingurune batek, indarkeria ekiditeko lanaz gain, beharrezko baldintzak ezarri behar ditu bere barruko harremanak tratu onean, integritate fisiko, psikologiko eta emozionalaren errespetuan eta eskubide guztien gauzatzean oinarrituta egon daitezen.

Ingurune seguruak eta babesleak sortzeko, adostutako ekintza bat gauzatu beharko da, helduak prest egon daitezen tratu oneko ingurune bat sustatzeko, indarkeria prebenitzeko, arriskuak goiz detektatzeko eta indarkeria dagoenean aipatuari egokiro eta eraginkortasunez erantzun ahal izateko, harkorrak eta ekiteko prest dauden profesionalekin. Aipatutako ingurunetan, haurrek autobabeserako baliabideak

edukiko dituzte, bai eta indarkeria detektatzen eta laguntza nola eta zeini eskatu behar zaion jakin ere.

Hezkuntza eta ikastetxeak ezinbesteko babes- inguruneak dira haurren aurkako indarkeria prebenitzeko. Ikastetxean ingurune seguru eta babesle bat eraikitzea, arriskuen eta autobabeserako lan-tresna egokien ezagutza transmititzea, pertsonen arteko harremanetarako eremu seguru bat sortzea edo familian edo gizartean gertaturiko arrisku-egoerak identifikatzea, hezteko eginkizunetik banandu ezin diren erantzukizunak dira.

Hezkuntza-arloko administrazioek paper oso garrantzitsua dute, ikastetxeek eta beren profesionalak haurren aurkako indarkeriari erantzun instituzional irmoa eta eraginkorra eman ahal izateko beharrezkoak diren mekanismoak eta prozedurak dituztela bermatzeko. Horren adibide da autonomia erkidegoek garatu eta argitaratu dituzten ikastetxetako arrisku- edo indarkeria-egoeren aurrean esku-hartzeko protokoloak. Izan ere, protokolo horiek ekarpen tekniko garrantzitsua egiten diote detekzioari eta esku-hartzeari.

Horrez gain, aintzat hartu beharreko beste alderdi bat da indarkeriaren biktimaren edo arrisku-egoeraren dauden haurrek ikastetxera joaten jarraituko dutela eta, horrenbestez, profesionalen eginkizuna da detekzioaz haraindi joatea eta pairatzen dituzten eraginak arintzen eta ez larritzen, estigmatizazioa prebenitzen eta biktimaren hezkuntza-prozesuaren jarraitutasuna bermatzen laguntzea.





Zer da ongizateko eta babeseko eginkizunaren koordinazioa

Ongizateko eta Babeseko koordinazioaren eskumen profesional berria 8/2021 Lege Organikoaren 35. artikuluan arautua dago. Bere xedea da irakaskuntza-sektorearen erantzun instituzionala bermatzea haurrak ikastetxetan babesteko.

Legediak dio ikastetxeek eta institutuek ikaskuntza erraztu eta beren ongizate fisiko eta psikologikoa sustatuko duten inguruneak eskaini behar dietela haur eta nerabeei. Ingurune seguru eta babesle horiek indarkeria-egoera guztiak prebenitu behar dituzte, bai eta egokiro esku-hartu ere horrelakorik dagoenean.

Hezkuntza-arloko legediak, era berean, ikastetxe guztietan ongizateko eta babeseko koordinazioaz arduratuko den profesional bat izendatzeko betebeharra zehazten du. Eta autonomia erkidegoetako hezkuntza-administrazioei dei egiten die koordinazio figura horren abiaraztea gaituko duen esparru arauemailea garatzeko, bete behar dituzten eskakizunak eta eginkizunak osatuz¹.

Hezkuntza-arloak denbora luzea darama haurren ongizatea eta babesa garatzen. Sortu berri den figura

horrek, ordea, esfortsuak areagotzeko beharra aitortzen du lana sistematikoki, era ordenatuan eta ikastetxeko beste profesional guztiekin eta babesari dagokionez eskudunak diren erkidegoko zerbitzu publikoetako sarearekin koordinatuta egin dadin.

Ongizate eta babesaren sustapena ikastetxearen bizikidetza-planean gauzatu beharra dago, eta ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan jaso.

Eginkizun hori koordinatuko duen pertsonaren eskumenak ez dira ikastetxearen barruan gertatzen den horretara mugatuko. Ikuspegi-aldaketa bat behar da: gakoa ez da nire ikastetxean gertatzen dena, nire ikastetxeko hurrei gertatzen zaiena baizik. Horretarako, arriskuak eta beren inpaktua aintzat hartu behar dira, familiaren eremuan zein komunitatean, espazio horien hedapen birtuala ahaztu gabe.

Arestian aipatu bezala, 8/2021 Lege Organikoak dio autonomia erkidegoetako Hezkuntza sailen ardura dela irudi profesional honen eginkizunak eta eskakizunak arautzea. Legeak, aldi berean, Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileak sustatu, koordinatu eta/edo gauzatu beharko dituen gutxieneko eginkizun batzuk zerrendatzen ditu.

1. Betebehar hori Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoaren 124. artikuluko 5. atalean jasota dago, 3/2020 Lege organikoaren (HLOALO) artikuluko bakarrak erantsia.



Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearen eginkizunak

a) Prebentzioari, detekzio goiztiarrari eta haurren babesari buruzko heziketa-planak bultzatzea. Planen hartzaileak izango dira ikasleekin lan egiten duten ikastetxeko langileak. Lehentasuna izango dute tutore diren ikastetxeko langileei zuzenduriko heziketa-planek, bai eta ikasleei indarkeria-egoerak detektatzeko eta indarkeriaren aurka egiteko trebeziak ematea xede duten planek ere.

Halaber, Guraso Elkarrekin koordinazioan, heziketa hori gurasoen eta tutoretza, zaintza edo harreraren ardura dutenen artean ere sustatu beharko du.

b) Gizarte zerbitzuen esku-hartzea behar duten kasuen koordinazioa, hezkuntza-arloko administrazioek onartu dituzten protokoloek jarraiki eta, egoki baderitzo, dagokion aginteak jakinaren gainean jartzea, legediaren arabera jakinarazi behar diren kasuen komunikazioari kalterik egin gabe.

c) Ikasleen, ikastetxeko langileen eta, oro har, hezkuntza-komunitatearen aurrean bere burua identifikatzea, ikastetxean edo ingurunean gertaturiko balizko indarkeria-kasuei loturiko komunikazio guztietarako erreferentzia nagusi gisa.

d) Haur eta nerabeen ongizaterik gorena ziurtatuko duten neurriak zein tratatu onaren kultura bat bultzatzea.

e) Gatazkak era baketsuan konpontzeko bide alternatiboen erabilera sustatzea ikastetxeko langileen eta ikasleen artean.

f) Udalerrian edo autonomia erkidegoan indarrean dauden indarkeria mota guztien aurkako prebentzio- eta babes-protokoloen berri ematea ikastetxeko langileei.

g) Ikasle desgaituekiko edo kalteberatasunari edo dibertsitateari loturiko beste edozein inguruabar duten ikasleekiko begirunea bultzatzea.

h) 31. artikulua arautzen duen bizikidetza-plana ikastetxeko zuzendaritzarekin batera koordinatzea.

i) Adingabeen segurtasunerako arriskua dakarten egoerei dagokienez, berehalako komunikazioa sustatzea ikastetxearen eta estatuko segurtasun indar eta kidegoen artean.

j) Adingabeen datu pertsonalen erabilera bidegabea suposa dezaketen egoerei dagokienez, berehalako komunikazioa sustatzea ikastetxearen eta estatuko segurtasun indar eta kidegoen artean.

k) Elikadura osasuntsu eta elikagarria sustatzea ikastetxean hurrek eta nerabeek, kalteberenak batez ere, dieta orekatu bat izan dezaten.

Iturria: Ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa, haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteko (HNIAEB), 35. artikulua.

Ongizateko eta Babeseko koordinazioaren ardura duen pertsonaren betebeharra ez da mugatzen arrisku- eta indarkeria-kasuen kudeaketa eta biktimei eskainiko zaien arreta koordinatzera. Horrez gain, prebentzio-lan bat ere bete behar du. Horretarako, ikaskuntzaren prestaketa zuzendu beharko du indarkeriarik (ikasleen artekoa zein helduek gauzatzen duten hori) gauzatzen ez dela bermatzeko eta detekzio goiztiarreko ekintzak eta esku-hartzeak sistematikoki eta era antolatuan eta administrazio publikoek zehaztu dituzten prozedura eta estandarrei jarriki gauzatzen direla ziurtatzeko.


Bere eginkizunetan ikus daitekeenez, kaltea prebenitzea aipatuari aurre egitea eta kaltea onbideratzea bezain garrantzitsua da. Prebentzioa funtsezkoa da eta segurtasuna eskaintzen du, haurrentzat zein hezkuntza-arloko profesionalentzat. Eta, aldi berean, askoz eraginkorragoa da indarkeriari loturiko gizarte- eta ekonomia-kostuen ikuspegitik.

Bere eginkizunak bete ahal izateko, ongizateko eta babeseko koordinazioaz arduratuko den pertsonak laguntza-sare zabal eta irmo bat izan beharko du bere esku, babesaren arloan eskumenak dituzten administrazio ezberdinetan (gizarte zerbitzuak,

osasuna, polizia, justizia, bestek beste), jarraibide sistematikoak ezarri elkarrekin lan egin, korrodinatu eta komunikatzeko. Halaber, barne-mailako laguntza-sare eta antolakuntza bat ere ezarri beharko du ikastetxeko eta hezkuntza-arloko (zuzendaritza, hezkuntza-orientabiderako taldeak, sail ezberdinetako unitate espezializatuak, besteren artean) beste profesional batzuekin batera.

8/2021 Lege Organikoak dio ongizateko eta babeseko koordinazio-eginkizunak integralak izan behar dutela. Horrenbestez, sentsibilizaziotik kaltearen onbideratzera arte doazen esku-hartzeak gauzatu behar dira, detekzio goiztiarretik eta babesetik igaroz. Esku-hartze horiek errazago antolatzeko, eredu biopsikosozialak proposatzen dituen hiru prebentzio-mailen inguruan koka daitezke: **lehen, bigarren eta hirugarren mailako prebentzioa.**

Prebentzio dira, indarkeriaren eta haurren garapenean izan dezaken kaltearen agerpena ekiditea xede duten neurriak ez ezik, baita indarkeria detektatzea eta geldiaraztea xede duten horiek ere, egoera larritu edo areagotu ez dadin, eta horren eraginak arintzea eta indarkeriaren biktima diren haurren onbideratzea sustatzea xede dutenak ere.



Prebentzioaren gakoa da arriskuei aurre hartzea eta beren eragina gutxitzea, kalterik ez dagoela ziurtatzeko.

Prebentzioaren hiru maila horietako bakoitzean, Ongizateko eta Babeseko koordinazioak helburu zehatzak bilatzen ditu eta esku-hartze espezifikoak eskatzen ditu helburu horiek lortzeko.

- **Lehen mailako prebentzioa:** bere xedea da arrisku-faktoreak minimizatzea edo babesekoak indartzea, tratu onean heztea eta jokabide osasuntsuak sortzea pertsonen arteko harremanetarako.
- **Bigarren mailako prebentzioa:** bere xedea da haurrengan eragin negatiboa duten egoerak identifikatzea eta kudeatzea, egoeren areagotzea saihestuz eta beharrezko bitartekoak emanaz hezkuntza-komunitateko kide ezberdinei, familia barne, egoerari buelta emateko.
- **Hirugarren mailako prebentzioa:** kaltea gertatu ondoren aktibatzen da, kaltea erreparatzen eta bere ondorioak minimizatzen laguntzeko xedearekin.



Hirugarren mailako prebentzioa

Bigarren mailako prebentzioa

Lehen mailako prebentzioa

Ikastetxeak ez badio denborarik gehiena eskaintzen lehen mailako prebentzioari loturiko lanari, erreakzio-erantzunean oinarritutako alderantzizko piramide baten aurrean aurkituko gara. Piramide horrek arriskua areagotzen du, ez du kaltea saihesten eta kostu handiagoa dauka, sozialki zein ekonomikoki. Kasu horretan, lehentasun estrategikoak dedikazio-piramide horri buelta ematea izan behar du.

Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearen eginkizun nagusienetako bat da eragina izatea, lehen mailako prebentzioari eta detekzio goiztiarrari zuzendutako ekintza eta baliabide gehiago lortzeko hezkuntza komunitatean. Horrenbestez, haurren babesari buruzko kontzientzia eta ardura hedatu beharko ditu hezkuntza-komunitateko helduen artean, babesaren alorrean haurren partaidetza sustatu eta gai honi loturiko esku-hartzeen kalitatea eta koordinazioa bermatzeko. Horretarako guztirako, funtsezkoa izango da haurrak indarkeriaren aurrean prebenitzeko eta babesteko kultura proaktibo bat sortzea.

Bestalde, oso garrantzitsua da Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileek haur eta nerabeentzat iristeko modukoa izango den helduez osaturiko ingurune babesle bat osatzea, ikastetxean haurrekin harreman zuzena duten helduei zein hezkuntza-komunitateko beste eragile guztiei lagunduko diena, tratu ona eta elkarren arteko zaintza sustatuko duten partaidetza eta indarkeriarik gabeko harreman-eremu bat bultzatuz.

Irakasle guztien eta Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearen lana oso garrantzitsua da ikastetxean garatzen den prebentzio-jarduketa bateratua, koherentea eta eraginkorra izan dadin.

Ikastetxe batean Ongizateko eta Babeseko koordinatzaile izateak une latz ugari aurre egin behar izatea eskatzen du, ardura handiko lan intentsiboa da eta erantzukizun handia eta estres eta presio handiko egoerak egoki kudeatzeko gaitasuna eskatzen ditu. Erantzukizun hori norberaren gain hartu ahal izateko, ondoko alderdiak oso garrantzitsuak dira: heziketa egoki bat, erakundearen babes, hezkuntza-komunitatearen babes eta barne-mailako lankidetzaren eta koordinazio-sare bat osatzea, non eremu ezberdinetako (osasuna, hezkuntza, polizia, justizia, gizarte zerbitzuak, kirola, etab.) profesionalak ere parte hartuko duten.

Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearen jardueraildoak eta lan-tresnak

Kapitulu honetan, 8/2021 Lege Organikoak esleitzen dizkion eginkizunen barruan Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileak garatu beharko dituen jardueraildo nagusiak aurkezten dira. Jardueraildo horiek dagokien prebentzio-mailaren arabera sailkatu dira.

Egitura hiru prebentzio-mailak erabiliz antolatzen da eta mailetako bakoitzean funtsezko jardueraildoak,

bai eta horiek garatzen lagunduko duten lan-tresna ezberdinak ere jaso dira.

Erreminta horien helburua da Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearen lana eta honek beste profesional guztiekin dituen harremanak erraztea, hezkuntza-arloak prebentziozko erantzun eraginkorra eman diezaion haurren aurkako indarkeriari ikastetxeetan.

Ikuspegi biopsikosoziala	Jardueraildoak	Lan-tresnak
Lehen mailako prebentzioa	Erakundearen konpromisoa handitzea	• Haurren ongizateari eta babesari buruzko erakundearen adierazpenerako erredua
	Arriskuak identifikatzea	• Arriskua eta inpaktua. Probabilitatea, gertaera eta inpaktuaren arteko interrelazioa • Haurrentzako arriskuen inguruko INJUCAMen mapa
	Jarduerak Urteko Plangintza Orokorrean txertatzea	• Ongizate eta babesari loturiko jarduerak planifikatzea
	Etengabeko prestakuntza, haurren eta nerabeen babesaren inguruan	• Ikastetxean ezarritako Ongizateko eta Babeseko kultura aurkeztea
	Prozedura seguruak definitzea	• Beharrezko prozedurak identifikatzeko fitxa • Jarduera zehatz bati loturiko arriskuak aztertzea: txangoak, sarrerak eta irteerak
Bigarren mailako prebentzioa	Detekzio goiztiarra	• Entzute-gune bat sortzeko gakoak • Haur edo nerabe baten testigantza zuzena jasotzeko gida
	Barne-mailako koordinazio-sare bat sortzea	• Esku-hartzea eskatzen duten egoerak barne-mailan komunikatzeko fitxa • Komunitate-sareko bitartekoak eta programak mapatzea
	Kasuak kudeatzea	• Esku-hartzeak planifikatzeko fitxa • Ikasleak elkarriketatzeko erredua • Familia elkarriketatzeko erredua
	Aginte eskudunei jakinaraztea	• Gizarte Zerbitzuei jakinarazteko erredua
Hirugarren mailako prebentzioa	Ikasleentzako laguntza	• Laguntza-plana • Birbiktimizazioa eta estigmatizazioa ulertzeko eta ekiditeko gida
	Koordinazioa beste erakunde publiko batzuekin, jarraipena ziurtatzeko	• Kanpo-koordinazioko fitxa

Lehen mailako prebentzioa

**Bere xedea da arrisku-faktoreak
minimizatzea eta babesekoak sortzea
edo indartzea, tratu onean heztea eta
jokabide osasuntsuak sortzea
pertsonek arteko harremanetarako.**

Lehen mailako prebentzioa

Lehen prebentzio-maila hau ingurune seguru eta babesle bat eraikitzeko oinarria da. Ikastetxeko zuzendaritzak, langileek eta ongizatea eta babesa koordinatzeko ardura duten pertsonak prebentzioa proaktiboki kudeatzen dute, denbora gehiena maila honi eskainiz. Ongizatea eta babesa koordinatzeko eginkizuna duen pertsonaren zereginik nagusia da hezkuntza-komunitate osoa hartuko duen haurren babeserako kultura bat sustatzea.

Jazoera kaltegarriren bat gertatu aurretik ikastetxea prestatzea helburua duten ekintzak sustatzen ditu lehen mailako prebentzioak. Bere xedea da ikastetxea arrisku- edo indarkeria-egoeren aurreko balizko esku-hartzeen eszenatoki baterako egokitzea. Lehen mailako prebentzioa prebentzio hutsaz haratago doa eta oso garrantzitsua da. Izan ere, ezinezkoa da indarkeriari aurre egin aldeztu aurretik horren inguruan hitz egin gabe eta ezinezkoa da haur eta nerabeen ongizatean eragiten duten egoerei erantzun aldeztu aurretik prestatuta-lan bat egin gabe.



● 1. JARDUERA-ILDOA

Erakundearen konpromisoa handitzea

Haurrak babestea xede duen konpromiso instituzional bat bultzatzea Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileak eta zuzendaritzak elkarrekin abiatu beharko duten prozesu sekuentzial eta adostu bat da. Prozesu horretan, ahal den neurrian eta denboran zehar, hezkuntza-komunitateko kide guztiak hartu beharko dute parte, haurren eta nerabeen parte-hartzea sustatuz bereziki. Xedea da espazio seguru bat,

ingurune babesle eta tratu onekoa sustatzea ikasleentzat. Nahiz eta konpromiso hori dokumentu batean jaso, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan ere txertatu beharko da. Dokumentu honen gakoa da dokumentua sortu duen prozesua eta bere printzipioen ezagutza eta betetzea hezkuntza-komunitateko kide guztien aldetik, haurrak barne, ikastetxe bakoitzaren beharrei eta testuinguruari erantzunez.

● 1.1 TRESNA

Ongizatearekiko eta haurren babesarekiko konpromisoari buruzko erakundearen adierazpenerako eredua

Zer da?

Helburuak adierazteko eredua bat da, ikastetxearen babes- eta ongizate-politikaren parametroak zehaztea ahalbidetzen duena, ikastetxean lan egiten duten eta jarduten diren pertsona guztiek ezagutu eta parteka ditzaten.

Nola erabiltzen da?

Ikastetxearen Heziketa-proiektuan txertatzea gomendatzen da. Proposatzen den eredua inspirazio-iturri izan daiteke ikastetxearen adierazpen propioa egiteko; bestela, zuzenean txerta daiteke heziketa-proiektuan. Erakundearen adierazpena zuzendaritza-taldearen eta ikasleen artean, era parte-hartzailean egitea gomendatzen da. Adierazpena onartu ostean ezagutua izan dadin, hezkuntza-komunitate osoan zehar hedatzea gomendatzen da.

Tratu ona eta ingurune seguruen sorrera bermatzea hezkuntza-komunitate osoak partekatzen duen erantzukizun bat da.

Haurren ongizateari eta babesari buruzko erakundearen adierazpenerako eredua

{Ikastetxearen izena}n, haur eta nerabeen babesa bermatu ahal izateko, eragile guztiek berme horren aldeko konpromisoa hartu behar dute, bakoitzak bere erantzukizun indibiduala onartuz.

Haurren zaintza eta ongizatea gure lanaren funtsezko eginkizunetako bat dela uste dugu, haur guztiek beren ongizaterako eta garapen egokirako arrisku guztien aurrean zein indarkeria edo abusua pairatzeko edozein arriskuren aurrean babestuak izateko eskubidea baitute.

Gure konpromisoa: Haurren Ongizate eta Babeserako Politika

Ikastetxeko haur guztiak prebenitzeko eta babesteko gure funtsezko betebeharra aitortzen dugu. 1989ko **Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa** (HEK) irmoki defendatzen dugu. Horretarako, haurrak babesteko Espainiako legeak eta dagozkion erkidego-mailako legeak ere betez jarduten dugu.

Gure langile guztiek Haurrak Babesteko Politika nahitaez bete behar dute. Xede hauetarako, langile dira erakundeak zuzenean kontratatu dituenak zein administrazio-kontseiluko kideak, kontratistak, azpikontrataturako langileak, aholkulariak, boluntarioak, praktiketako langileak eta erakundearen izenean ari diren langile guztiak.

{IKASTETXEAREN IZENA}REN IZENEAN, ONDOKO KONPROMISO ZEHATZAK HARTZEN DITUGU:

- Gure langileak hezte eta irizpide komunak ematea haurren babesari dagokionez, jardueren planifikazioaren eta gauzatzearen funtsezko eremu gisa.
- Haurrak baloratzea, errespetatzea eta esateko dutena entzutea.
- Legea betez, balizko arrisku- edo indarkeria-egoeren berri ematea erakunde eskudunei; eta haurrak eta beren gurasoak egokiro inplikatzeko.
- Haur eta nerabeen babesarekin konprometituta dauden profesionalak kontratatzeaz arduratzea.
- Haurren babesari eta hurrei zein beren gurasoei eta tutoreei loturiko jardunbide egokiei buruzko informazioa partekatzea.
- Langileak eraginkortasunez kudeatzea gainbegiratzeko, laguntza eta prozesu gardenen bitartez.

Adierazpen hau urtero berrikusiko dugu, legean eta arautegietan egindako aldaketak islatzeko eta jardunbide egokiak bermatzeko.

● 2. JARDUERA-ILDOA

Arriskuak identifikatzea

Ikastetxean eta bere inguruan diren arriskuen identifikazioa ikuspegi sistematiko baten parte da, eta bere xedea da nola balizko arriskuak hala ikastetxera bertaratzen diren haurrak eta nerabeak babesteko mekanismoak identifikatzea eta ebaluatzea.

Identifikazio horren xedea da profesionalei ahuleziak eta indarrak detektatzen laguntzea, ondokoak bezalako estrategia eraginkorrak garatu ahal izateko: prebentzio-

jarduerak planifikatzea hutsuneak edo ahuleziak konpondu eta, honela, ikastetxean eskaintzen den zaintza eta babesa hobetu ahal izateko. Izan ere, ikastetxe eta institutu guztiak ezberdinak diren bezalaxe, ez dago ikastetxe guztietan aplika daitekeen erreminta bakarrik detektziorako. Jarraian, erreminta ezberdinak proposatzen dira ikastetxeek arriskuak errazago identifika ditzaten.

● 2.1 TRESNA

Haurrentzako arriskuen inguruko INJUCAMen mapa

Zer da?


Kontsultatzeko tresna da, «Guía de entorno seguro en contextos de educación no formal» izeneko gidaren parte da. Haur eta nerabeekin lan egiten duten gizarte- eta hezkuntza-arloetako langileei zuzenduriko gida bat da. Bere xedea da gerturatze praktiko bat eskaintzea hezkuntza ez formalaren eremu espezifikoan ingurune seguruak sortu ahal izateko. Arriskuak ikasleen hautematearen bitartez aztertze, INJUCAM federazioak egin duen proposamen metodologikoa erabil daiteke.

Gidak, ildo nagusi baten bitartez (bidaia-koaderno bat, kasu honetan), babes-kontzeptuen barneratzea errazago egin nahi die ikasleei. Proposamen hau ardazten duten kontzeptuak dira arriskua, tratua ona eta haurrak babesteko politika.

Proposamenak haurren parte-hartzea bilatzen du eta tresna ezin hobea da gida honetan deskribatzen ditugun prozedura guztiak hurrekin eta nerabeekin gauzatu ahal izateko (babes-politika bat garatzea, arriskuaren inguruko kontzientziaketa, tratua onaren inguruko heziketa).

Nola erabiltzen da?

Guía de entorno seguro en contextos de educación no formal delako gidak pausoz pauso deskribatzen du prozesua garatzeko modua.



● 2.2 TRESNA

Arriskua eta inpaktua. Probabilitatea eta inpaktuaren arteko interrelazioa

Zer da?

Tresna honek metodologia espezifiko bat proposatzen du identifikatutako arriskuen inpaktua eta probabilitatea aztertzeko. Prozesua klaustro-bilera batekin hasten da. Bertan koordinatzaileak, kide bakoitzaren hautematek, arrisku ezberdinak identifikatzen lagun dezake. Arrisku-zerrenda horretatik abiatuta, zuzendaritzak eta koordinatzaileak lehentasuna eman beharko diete larrienak diren arriskuei. Tresna hau oinarria izan daiteke arrisku horiek neurtzeko.

Proposatzen den lan-tresnak, alde batetik, jazoera zehatz bat gertatzeko probabilitatea eta, bestetik, gertatuko balitz izango lukeen inpaktua edo ondorioak baloratzen laguntzen du.

Nola erabiltzen da?

Arriskua aztertzerakoan, erabilgarria da elkarri lotuta dauden bi alderdiren artean bereiztea:

- Zerbait gertatzeko probabilitatea
- Inpaktua edo ondorioak

Arrisku baten inpaktua edo ondorioak eta kalteren baten jazoeraren probabilitatea neurtzeko 1 eta 5 puntu bitarteko taula bat erabiltzen da, non 1 “oso nekez gertatzekoa” eta inpaktu “minimoa” den eta 5 “oso litekeena” eta inpaktu “oso altua” den. Azken emaitza lortzeko, probabilitateari eta inpaktuari esleitutako puntuazioak biderkatuko dira.

Proposatutako metodologia sistematikoki erabiliz gero, errazagoa da arriskua egoera zehatz batzuetan zehaztea. Arriskua aztertzeko prozesua ondoko galderei erantzunez egin daiteke:

1. Zein da jazoera bat gertatzeko probabilitatea?
2. Zein izango da bere inpaktua?

Galdera horiei erantzuteko, “1” eta “5” bitarteko zenbakizko kalifikazioa erabiliko da.

Galdera horiek zenbaki baten bitartez kalifikatzeko galdera gehiago egin beharko ditugu; izan ere, “litekeena” gisara kalifikatutako arrisku bat, hori izateari utziko baitio arriskua arintzeko neurriak badaude. Horrenbestez, hasierako galdera horiek ondokoen bitartez osatu beharko dira:

- Zer nolako neurriak identifikatu dira, ikastetxetik, probabilitate hori murrizteko?
- Inpaktua murriztu al daiteke? Nola?

Galderei erantzun ondoren, lortutako emaitzak biderkatu egingo dira eta lorturiko zenbakiak alerta-maila erabakiko du (berdea, horia edo gorria).



Hiru-alerta maila daude:

• **Alerta baxua (eremu berdea).** Oso nekez gertatuko da jazoera edo, gertatzen bada, inpaktu minimoa izango du. Probabilitatea murrizteko esku hartu beharko dugu beti, baina ez dago premia handirik.

• **Alerta ertaina (eremu horia).** Ezbeharra gertatzeko arriskuak progresiboki egiten du gora. Ahal bezain laster esku hartu beharko dugu, probabilitatea murrizteko.

• **Alerta altua (eremu gorria).** Ezbeharra gertatzeko probabilitatea izugarria da eta inpaktua/kalteak esanguratsuak izango dira. Berehala esku hartu beharra dago, lehentasunez.

Probabilitatea	Oso litekeena	5	10	15	20	25
	Litekeena	4	8	12	16	20
	Posiblea	3	6	9	12	15
	Nekez gertatzekoa	2	4	6	8	10
	Oso nekez gertatzekoa	1	2	3	4	5
Probabilitate * Inpaktu =		Minimoa	Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Arriskuarekiko esposizioa		Inpaktua				

Jarraian, adibide bat jaso da: ikastetxeko zuzendaritzak ikasleak eskola-orduak amaitu ondoren zentrotik irtetzerakoan berariazko arriskua dagoela erabaki du, ikasleren bat ikastetxetik bakarrik irten daitekeelako. Ikastetxeak indarrean dituen neurriak aintzat hartu ondoren, arriskuari loturiko hiru balorazio egin daitezke:

Alerta baxua: Ikastetxeak prozedura argi bat ezarrita dauka, ikasleren bat desagertzen denerako. Haur hezkuntzako haurrak direnean, zaintza berezia dago aurreikusita. Begirale bat dago beti, atera ez daitezten. Haur batek hanka egiteko probabilitatea oso baxua da; gertatzen bada, ordea, inpaktua handia izango da. Arriskua tarte onargarri batean mantentzen da eta ez dago beste inolako neurriren beharrik.

Alerta ertaina: Prozedura bat ezarrita eta heldu bat beti begirale bezala dagoen arren haur hezkuntzako eraikineko sarrerak eta irteerak kontrolatzen, sarritan bere tokia utzi behar izaten du, gurasoak tutoretza-bulegoetaraino laguntzeko arduraduna ere baita. Sarrera, horrenbestez, zaintzarik gabe geratzen da askotan. Litekeena da haur batek ikastetxea laguntzailerik gabe uztea eta, gertatzen bada, inpaktua altua izango da. Arriskuak gora egin du eta neurriak hartu behar dira murrizteko. Ondoko neurria har daiteke, esaterako: begiraleak ezingo du bere tokia utzi. Tutoretza-bulegoen kokapena ahoz adieraziko die beharra duten gurasoei eta, hauek, horretarako jarri diren kartel adierazgarriei jarraitu beharko diete.

Alerta altua: Ikastetxeak ez du inolako prozedurarik zehaztuta haurrak desagertzen direnerako eta, gainera, ikastetxearen ateak irekita daude, eta zaindu gabe. Oso litekeena da haur batek ikastetxea ikusia izan gabe uztea eta horren inpaktua oso altua izan daiteke. Neurriak hartu behar dira, berehala.

● 3. JARDUERA-ILDOA

Jarduerak Urteko Plangintza Orokorrean txertatzea

Urteko Plangintza Orokorra (UPO) ikastetxearen antolaerari eta funtzionamenduari loturiko alderdiak jasotzen ditu. Horien artean daude proiektuak, programazio didaktikoak eta ikasturterako adostutako ekintza-plan guztiak. Horrenbestez, haurren babesari loturiko jarduerak eta ekintza guztiek aipatuaren barruan egon beharko lukete.

Ongizate eta babesari loturiko ekintzak zehazteko, arestian deskribatu den arriskuen identifikazioaren inguruko atala hartuko da abiapuntutzat. Azterketa horri esker esku-hartzea eskatzen duten egoera horiek identifikatu baitira. Ikasturtean zehar garatuko diren ekintza horiek Bizikidetza Planean eta Urteko Plangintza Orokorrean jaso beharko dira.

● 3.1 TRESNA

Ongizate eta babesari loturiko jarduerak planifikatzea

Zer da?

Fitxa bat da eta ikasturtean zehar garatuko diren jardueren inguruko beharrezko informazioa jasotzen du. Tresnaren xedea da babes-metodo bat eskaintzea Ongizateko eta Babeseko jarduerak antolatzeko.

Nola erabiltzen da?

Fitxa honetan ikasturtean zehar garatuko diren jarduerak jasotzen dira eta hutsuneak dagokion informazioarekin beteko dira. Abiapuntutzat har daitekeen adibide bat jasotzen du taulak.

Erabiltzen erraza da eta jarduerak ezberdinak antolatzeko modua. Proposatu diren jardueretarako, xedeak, arduradunak, data, iraupena eta beharko diren bitartekoak adieraziko dira.

Jarduerak	Xedeak	Arduradunak	Data	Iraupena	Bitartekoak
Adibidea: Tailerra, Sentsibilizazioa ri buruzkoa eta irakasleentzat	Ezagutzea eta ulertzea haurrek paira dezaketen indarkeria eta bere ondorioak	Koordinatzailea, Ongizate eta babesa	Hasiera ikasturterako	5 ordu	- Ikasgela - Ordenagailua

● 4. JARDUERA-ILDOA

Etengabeko prestakuntza haurren babesaren arloan

Ongizateko eta Babeseko koordinatzaile izango den profesionalaren beste eginkizun garrantzitsuenetako bat izango da haurren babesari buruzko oinarritzko zenbait kontzeptu hedatzea eta helaraztea hezkuntza-komunitateari. Prestakuntza ezinbestekoa da ikastetxeak egokiro jorra ditzan, bere eskumenen barruan, prebentzioa, detekzioa eta esku-hartze eraginkorra. Hoberena izango litzateke hasierako eta etenik gabeko prestakuntza bat eskaintzea ikastetxeko langileei; eta xede honetarako garatutako dokumentuak eskuragai izatea. Dokumentu horiek derrigorrez irakurri eta aplikatu beharko dituzte ikastetxeko langileek. Halaber, familiek eta ikasleek ere prest egon beharko dute

ingurune babesle baten eraikuntzan protagonista izateko; horretarako, haurrak babesteko erakundeak duen konpromisoa eta indarreko prebentzio- eta babes-mekanismoak ezagutu beharko dituzte. Horrez gain, Ongizateko eta Babeseko koordinatzailea zein den jakin beharko dute eta ezagutu dituzten egoeren berri eman beharko diote azken honi. Informaziorik gabe ez dago esku hartzerik edo gaizki esku hartzeko arriskua dago. Zehazki, haurrek informazio egokia badute ikastetxeak beren babeserako ezarria duen egituraren inguruan, norengana jo dezaketen eta hori eginez gero zer gertatuko den badakite, arriskuak hobe prebenituko dira, bai eta indarkeriaren inpaktua murriztu ere.

● 4.1 TRESNA

Ongizate eta babesaren kultura hezkuntza-komunitatean sustatzeko aurkezpena

Zer da?

Ikastetxeak ikasleen babesarekin duen konpromisoa azalduko duen hasierako aurkezpenerako adibide bat eskaintzen da. Halaber, familientzat tailer berezi bat antolatzea ere gomendatzen da.

Nola erabiltzen da?

Aurkezpena ikasturte hasieran egitea gomendatzen da. Jarraian, aurkezpenean landu beharreko funtsezko puntu batzuk adierazi ditugu. Proposamena orientagarria da; prestakuntza-bitartekoen inguruko iturri ezberdinak eskaintzen dizkie profesionali, horren ordez eta/edo proposamen hau osatzeko erabil ditzaketenak.





Hezkuntza-komunitate osorako aurkezpen bat egiteko gida

- Hasteko, Ongizateko eta Babeseko koordinazioaren xedea laburki azaltzea gomendatzen da: tratu oneko kultura bat sustatzea eta ikasleen babesa bermatzea edozein indarkeria-, abusu- edo ongizaterako arrisku-egoeraren aurrean.
 - Ongizateko eta Babeseko koordinazioaren eginkizuna ondoko alderdien bitartez laburtu daiteke. Esku-hartzea integrala da: prebentziotik detekziora eta erantzuneraino doa. Babes-sareko beste eragile guztiekin (ikastetxeak zein hortik kanpokoak) koordinatutako esku-hartzea da.
 - Ikastetxean ezarritako bizikidetza-arauak nabarmentzea gomendatzen da. Horietako zenbait diapositiba honetan azal ditzakezu.
 - Koordinatzailearen zein ikastetxearen lana prebentzio integrala eta koordinatua dela azaldu beharko litzateke. Esku-hartze hori ikastetxean gauzatzen da.
 - Egokia litzateke ere legeak Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileari esleitzen dizkion eginkizunak laburki azaltzea.
 - Garrantzitsua da koordinatzailea ikastetxearen izenean jarduten dela eta erabakiak zuzendaritza-taldearekin batera hartzen direla azpimarratzea. Emango den erantzuna instituzionala izango da, ez indibiduala.
 - Puntu honetara iritsita, jakinarazpenetarako dauden komunikazio-kanalak azal litezke; esaterako:
 - Aurrez aurre.
 - Posta elektronikoz (helbidea jaso).
- Edo ikastetxeak ezarri duen beste edozein kanal erabiliz. Koordinatzailearekin harremanetan jartzera eraman dezaketen zenbait arrazoi ere azal litezke puntu honetan.
- Beste gomendio bat: haur edo nerabe batek paira zitzakeen indarkeria-egoerak komunikatzeko betebeharra gizarte guztiak duela azaltzea. Eta ikastetxetan haurrekin lan egiten duten profesionalen kasuan, betebehara hori legez arautua dagoela ere nabarmentzea. Jakinarazteko betebehara horrek aginte eskudunak informatzera behartzen du. Aginte horiek izan daitezke gizarte zerbitzu eskudunak, segurtasun indar eta kidegoak eta Fiskaltza.
 - Amaitzeko, Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearen xedea ikastetxea ingurune seguru eta babesle bilakatzeko beharrezkoak diren ekintzak koordinatzea dela gogora iezaiezu bertaratuei. Beste behin, jakinarazpenak egiteko bideak gogora daitezke.

● 5. JARDUERA-ILDOA

Jarduera-prozedura seguruak definitzea

Ikastetxeek egokiro planifikatu behar dituzte ikasleen jarduerak. Ikastetxearen eta zuzendaritza-taldearen ardura da ezar daitezkeen arrazoizko neurri guztiak ezartzea, garatuko diren jardueren loturiko arriskuak minimizatzeko.

Xedea da kalteak pairatzeko haurrek eta nerabeek duten probabilitatea murriztea beren adina, heldutasuna, gaitasuna eta erantzukizuna aintzat hartuz.

Bestalde, gure eginkizunen artean daude egiten dugun hori kontrolpean mantentzea, gure metodologia langile guztiekin partekatzea eta ikastetxearen jokatzeko modua eta aplikatzen dituen irizpideak familiei argitzea. Eta, nola ez, azalpenak ematea gertakariren bat dagoenean. Horrez gain, arriskuak minimizatzeko xedearekin planifikatzeak hobekuntza-prozesuak identifikatzen eta hezkuntza-komunitatearen iradokizunak eta kezak barneratzen laguntzen du.

● 5.1 TRESNA

Ongizateari eta babesari loturiko jarduerak planifikatzea

Zer da?

Haurrentzat nolabaiteko arriskua suposa dezaketen arlo edo jarduera ezberdinak daude, arrisku horiei aurrea hartuko dituen plangintza bat behar dutenak. Horretarako, prozedura seguruen gauzatzea eskatzen duten jarduerak identifikatzen laguntzen duen fitxa bat eskaintzen da.

Nola erabiltzen da?

Proposatzen den taula orientagarria da eta, adibide gisa, prozedura seguruak eskatzen dituzten jarduera zehatzen zenbait proposamen biltzen ditu.

Taula osatzeko abiapuntua izango da arrisku-arloak identifikatzea. Lan-tresna honek zenbait arrisku-arlo identifikatu ditu. Ikastetxeak, ordea, beste batzuk gehitu beharko ditu beharrezkoak badira, eta beharrezkoak ez direnak kendu, ikastetxearen ezaugarrien arabera.

Identifikatutako arrisku-arlo bakoitzari dagokionez, prozedura bat garatuko da, ikastetxea hartzen duen autonomia erkidegoaren eskakizunak betez.

Haurrentzat nolabaiteko arriskua suposa dezaketen arlo edo jarduera ezberdinak daude, aurrea hartu eta arrisku horiek minimizatuko dituen plangintza bat behar dutenak.



Beharrezko prozedurak identifikatzeko fitxa

	Arrisku-arloa	Ebaluazioaren arduraduna: Izena	Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearen erantzukizuna	Eguneratzeak
Prozedura seguruen bidez estalitako arrisku-arlo orokorrak	Eskola-txangoak	Txangoaren arduraduna	Aholkularitza eta gainbegiratzea	Aldaketak daudenean jardueran Gertakari/istripu baten ostean
	Ikasleen sarrerak eta irteerak	Ongizateko eta Babeseko koordinatzailea	Aholkularitza eta gainbegiratzea	
	Haur txikiak zaintzea	Ongizateko eta Babeseko koordinatzailea	Aholkularitza eta gainbegiratzea	
	Euspen fisikoa	Ongizateko eta Babeseko koordinatzailea	Aholkularitza eta gainbegiratzea	
	Segurtasuna	Instalazioetako arduraduna	Lankidetzatza	
	Suteak eta larrialdiak	Instalazioetako arduraduna	Lankidetzatza	
	Osasuna eta lehen sorospena	Erizaindegia	Lankidetzatza	
Jarduera akademikoak	Gorputz Hezkuntza eta kirol-jarduerak	Gorputz Hezkuntzako ataleko burua	Aholkularitza eta gainbegiratzea	Bi urtean behin, beste arrazoirik ez badago Aldaketak daudenean legean Aldaketak daudenean jardunbide egokietan
	Eskolak orokorrean	Ongizateko eta Babeseko koordinatzailea	Aholkularitza eta gainbegiratzea	
	Zientzia-esperimentuak, tailerrak	Ataleko burua	Aholkularitza eta gainbegiratzea	
	Musika	Ataleko burua	Aholkularitza eta gainbegiratzea	
	Teknologia eta Diseinua	Ataleko burua	Aholkularitza eta gainbegiratzea	
	Jolas-orduetan/otorduetan	Ikasketen burua	Aholkularitza eta gainbegiratzea	
	Eskola-egunaren hasiera/amaiera	Ikasketen burua	Aholkularitza eta gainbegiratzea	
	Eskola-ekitaldiak	Ekitaldiaren antolatzailea	Aholkularitza eta gainbegiratzea	
	Zaintza-behar bereziak dituzten ikasle indibidualak	Aholkularitza/erizaindegia edo ikasleen behar berezietan arduratzen den profesionala	Aholkularitza eta gainbegiratzea	

● 5.2 TRESNA

Jarduera zehatz bati loturiko arriskuak aztertzea: txangoak, ikastetxeko sarrerak eta irteerak

Eskola-bizitzan behin eta berriz gertatzen diren jarduera batzuk daude. Oso garrantzitsua da horien arriskuak aztertzea, arrisku horiek prebenitzeko eta beren inpaktua murriztuko dituzten neurriak identifikatu ahal izateko. Neurri horiek sistematizatutako prozeduretan edo protokoloetan jaso beharko lirateke. Hezkuntza-komunitate osoak eta, gehienbat, prozedurak edo protokoloak

aplikatzeko ardura dituzten profesionalak neurri, prozedura eta protokolo horiek ezagutu beharko dituzte. Aldizka, indarreko oinarritzko prozeduren funtzionamendua ebaluatu beharko da, beharrezko hobekuntza-ekintzak gauzatu ahal izateko. Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileak arriskuak aztertu eta prozedurak garatzeko ariketa honen dinamizazio- eta koordinazio-papera bere gain hartu beharko luke.

Zer da?

Lan-tresna honek eredu ezberdinak eskaintzen ditu, jarduera zehatzei loturiko arriskuen azterketa egiteko. Arriskuen azterketa bat eskatzen duten jarduera bereziak eta aipatuak prebenitzeko eta minimizatzeko neurriak ikastetxe bakoitzaren testuinguru espezifikoaren eta bertan ikasten duten haurren adinaren mende egongo dira, besteak beste. Tresna honek, eta orientazio-xedeetarako, arriskua ekar dezaketen jardueren zerrenda bat eskaintzen du. Horrez gain, bi jarduera espezifikori buruzko arrisku-ebaluazioa egiten erakusten duten adibide bana ere jasotzen ditu. **Horrenbestez, bi eredu aurkezten dira.**

1. Eredua: Egun bakarreko txango baten arriskuak ebaluatzea.

2. Eredua: Ikastetxeko sarrera eta irteeretan dauden arriskuak ebaluatzea.

Jarduera zehatz baterako osatutako arrisku-ebaluaziorako eredu erraz batek babes-neurriak ezartzen laguntzen du, egituratutako eta guztiontzako erraza den esparru bat eskaintzen baitu.

Nola erabiltzen da?

Erabilgarria da eredu ezberdinak sortzea jarduera ezberdinetarako, ager daitezkeen arrisku ezberdinak bil ditzan bakoitzak. Nolanahi ere, pauso batzuk jarraitu behar dira:

- Baloratzen ari den jarduera zehatzari loturiko haurrentzako arriskuak pentsatzea eta horien zerrenda egitea.
- Kalteren bat nola eta zeinek edo zeintzuek paira dezaketen identifikatzea.
- Ebaluatzen ari den horren inguruko zehaztapenak (kanpoko altzarien homologazioa, adibidez) jaso ditzakeen edozein arau edo lege aintzat hartzea.
- Arriskua murrizt dezaketen neurriak pentsatzea. Aurreko horiek argiro eta laburki jasotzea egiten ari garen balorazioan edo planifikazioan.
- Pilatutako eskarmentua aldizka berrebaluatzea, hau da, berrikustea, biltzea eta gehitzea eta hezkuntza-komunitateko edozein kidek proposatu dituen iradokizunak eta hobekuntzak txertatzeko aukera aztertzea.

Egun bakarreko txango baten jarduerari buruzko 1. ereduak espazioa, ongizatea eta osasuna edo datuen babesa bezalako arlo espezifikoaren inguruko galdera garrantzitsuak jasotzen ditu. Proposatu den erantzun-sistema ondoko kalifikazioan oinarritzen da: egokia, partzialki egokia, desegokia edo ez da aplikagarria.

Ikastetxeko sartu/irtenetan dauden arriskuen analisiari loturiko 2. ereduak ondoko kalifikazioa jasoko duten kontrol-puntu ezberdinak zehazten ditu: bai, partzialki, ez, ez da aplikagarria.

1. Eredua: Egun bakarreko jarduerak/irteerak/txangoak

Ariketa honek egin nahi den jarduerari loturiko balizko arriskuak identifikatzen eta arrisku horiek murrizteko ekintzak planifikatzen laguntzen du.

Jarduera / irteera / txangoaren izena

Jarduera mota (jardueraren deskribapena, taldearen adina, irakasle kopurua, ikasle kopurua).

Arriskuaren ebaluazioaren data:

Bisitatu den tokiaren arduradunarekin harremanetan jartzeko informazioa:

Larrialdi kasuetarako informazioa. Gertuen dagoen osasun-zentroa edo ospitalea.

Ebaluazioaz arduratu den pertsonaren izena:

Bisitatu den tokiaren kokapena:

Berrikuspen-data (2 urtean behin):

Oharra: Garrantzitsua da jarduera bat planifikatzea; baina, arreta handiz planifikatu arren, gertakariak egon daitezke. Horrela gertatuz gero, jardueraren arduradunak gertatutakoaren berri eman beharko dio Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileari, gertatutakoa ekiditeko gehitu daitezkeen ekintzak baloratu eta berrikus ditzan.

Irakasle-ikasle ratioa*

HAUR HEZKUNTZA

2 urtetik beherakoak:

2-3 urte:

4-6 urte:

LEHEN HEZKUNTZA

Egun bakarreko irteerak:

Egun bat baino gehiagoko irteerak:

BIGARREN HEZKUNTZA

Egun bakarreko irteerak:

Egun bat baino gehiagoko irteerak:

* Ratioa lege zehaztuta duten erkidegoen edo ikastetxeen kasuan, ratio hori jaso beharko da. Legean ratorik jaso ez duten erkidegoen kasuan, ikastetxeak sistematikoki aplikatuko den ratio bat adostu beharko du, barne-mailako koherentzia bermatuz.

Egokia: **E**
 Partzialki egokia: **PE**
 Desegokia: **D**
 Ez da aplikagarria: **EA**

Arloa	Ebaluazioa	Iruzkinak edo beharrezko neurriak
Ekitaldiaren lekua eta sarbidea		
Nahiko handia al da lekua espero den haur kopurua hartzeko?		
Bere sarbidea kontrolatua al dago?		Nola kontrolatuko da sarrera?
Ekitaldirako sarbidea egokia al da? Adierazi bisitatuko den lekura iristeko erabiliko diren garraioak. Bertaratuko diren pertsonen kopurua eta ekitaldira nola sartuko eta bertatik nola aterako diren kontuan izan. Aparkalekua, autobusa eta oinez egin beharreko distantziak kontuan izan behar dira.		Espazio irekia al da? Autobusa aparkatzeko lekurik al dago? Autobusa espazio segurua al da? Zenbat iraungo du ekitaldiaren lekurako bidaia? Ordubetetik beherakoa al da? Autobusera igotzeko eta bertatik jaisteko prozesuak behar bezala planifikatu al dira?
Erraza al da ekitaldira iristea? Ezaguna bada, seinaleak edo argibideak al daude bertara iristeko?		Zaila bada iristea, mapa bat gehi ezazu oharpenak jasoz.
Espazioa mugikortasun urriko pertsonentzat egokitu al dago? Ekitaldiko sarrera eta irteera eta bere espazioaren barruko zirkulazioa kontuan izan behar dira.		Espazioak zailtasunen bat agertzen badu mugikortasun urriko pertsonentzat, sarbidea ahalbidetzen duten aldi baterako neurriak daude: arrapalak, eskubandak, etab.
Neurri bereziren bat behar al dute partaideek ekitaldira sartu ahal izateko?		Erantzuna baiezkoa bada, nola sartuko dira?
Aldi berean beste ekitaldi bat egongo dela jakinez gero, nola koordinatuko dira jarduerak?		
Larrialdiak eta suteak		
Ekitaldiaren larrialdietarako protokoloa ezagutzen al duzu? Kontuan izan: Autobabeserako Plana		
Alarma eta suteak detektatzeko sistemak instalatuta eta seinaleztatuta ditu espazioak? Irteeren seinaleztapen egokia, su-itxalgailuen eskuragarritasuna eta larrialdi-argien instalazioa kontuan izan behar dira.		
Larrialdi-plan espezifikoren bat behar al du ekitaldiak?		Zer nolako larrialdi-neurriak dauzka ezarrita ekitaldiak?
Ebakuatzeko bide argiak al daude ibilbide osoan zehar, gune seguru bat (topagune) barne?		Ekitaldia BAINO LEHEN, irakasleak espazioa ebakuatzeko modua eta topagunea non dagoen azaldu beharko dizkie ikasleei.
Gaitutako segurtasun-zerbitzuak: Ekitaldian zehar lanean egongo diren gaitutako langileak al daude toki horretan?		Nola ebakuatuko dira bertaratutako ikusleak?
Larrialdietarako ebakuazio-protokoloa langileei eta partaideei komunikatu al zaie?		Ekitaldia BAINO LEHEN, irakasleak espazioa ebakuatzeko modua eta topagunea non dagoen azaldu beharko dizkie ikasleei.

Egokia: **E**
 Partzialki egokia: **PE**
 Desegokia: **D**
 Ez da aplikagarria: **EA**

Arloa	Ebaluazioa	Iruzkinak edo beharrezko neurriak
Ongizatea eta osasuna		
Komun publiko nahikoak al daude?		Erraz ikus daitekeen eta irekia dagoen inguru batean al daude?
Komunen sarbidea mugikortasun urriko pertsonentzat egokituta al dago?		
Helduentzako eta haurrentzako komunak bananduta al daude?		Erantzuna ezezkua bada, ikasleak langileek lagunduta joango al dira komunera?
Garbiak al daude?		
Lehen sorospeneko osasun-zerbitzurik al dago? Lehen sorospeneko ekipamendua eta lehen sorospenari buruzko prestakuntza duten langileak.		Irakasleek lehen sorospeneko oinarritzko botika-kutxa bat izan beharko dute.
Balizko lesioen edo erreakzio alergikoen arriskurik al dago?		Beharrezkoak diren neurriak: • Irakaslea/arduraduna erizainarekin jarri beharko da harremanetan edo, bestela, ikasleen alergia mediko guztien erregistroak edo garrantzitsua den beste edozein medikuntza-informazio aztertu beharko ditu. • Alergia larriak dituzten (4 urtetik beherako) ikasle guztiek beren gurasoak edo tutoreak lagunduta joan beharko dute ekitaldira. Informazio-dokumentu bat entregatu beharko zaie gurasoei (1. orrialdea). • Ekitaldian zehar otorduren bat aurreikusia badago ikasleentzat, irakasle arduradunak elikadura-alergia guztiak jakinarazi beharko dizkie ekitaldiko arduradunei. Ikasleek beren jakiak eramanez gero ekitaldira, irakasle arduradunak dagokion informazioa helarazi beharko dio jangelako arduradunari, elikadura-alergiak kontuan izan ditzan jatekoak prestatzerakoan. • Irakasle arduradunak lehen sorospeneko botika-kutxa eraman beharko du. Ekitalditik gertuen dagoen osasun-zentroa eta ospitalea ezagutu beharko ditu.
Haurren ongizatea eta babesa		
Irakasleek aintzat hartu beharko dituzten ekintzak.		Beharrezkoak diren neurriak: • Guraso/tutoreentzako informazioa: - Jardueraren garapenari buruzko xehetasunak partekatzea eta espero diren portaera eta segurtasun-neurriak jakinaraztea. - Guraso/tutoreek txangoaren edo jardueraren berri izan dutela baieztatzea. - Gurasoen baimena lortzea txangoa egin aurretik. - Txangoa eskola-orduetatik kanpo egingo bada, bi gurasoen sinadura eskatuko da. • Ikasleentzako oharpenak: - Espero den jokabide- eta portaera-kodea ikasle guztiekien errepasatzea. - Ikasle guztiek arrisku-egoerak nola eta zeini jakinarazi behar dizkioten dakitela ziurtatzea. - Adin egokia badute, irakasle arduradunaren harremanetarako informazioa ikasleekin partekatzea. • Etenik gabeko zaintza: - Ikasleak ikusgai egongo dira beti, inoiz ez bakarrik, irakasleen zaintzapean.

Egokia: **E**
 Partzialki egokia: **PE**
 Desegokia: **D**
 Ez da aplikagarria: **EA**

Arloa	Ebaluazioa	Iruzkinak edo beharrezko neurriak
Haurren ongizatea eta babesa (jarr.)		
Irakasleek aintzat hartu beharko dituzten ekintzak.		- Derrigorrezko gainbegiratzea irakasleen aldetik, txango osoan zehar. • Zenbaketa eta topaguneak: - Ikasleak aldian behin zenbatzea, izan dituzten tarte librean aurretik eta ondoren. - Topaguneak identifikatzea eta ikasleei jakinaraztea. • Larrialdietarako protokoloak: - 2 urtetik beherako haur bat galduko balitz, poliziara deitu lehendabizi eta, ondoren, ikastetxeari jakinarazi. Honek, gertatutakoaren berri emango die guraso/tutoreei. • Argazkiak - Argazkirik ez atera eta hori egitea galarazi beste helduei ere, aldeztu aurretik ikastetxearen baimena lortu dutenean kenduta. • Gainbegiraketa-ratioak: - Adierazitako gainbegiraketa-ratioak jarraitu beti, segurtasuna bermatzeko.
Datuen babesa		
Datuak hirugarrenekin trukatzeko		Edonolako datu-trukerik egon al da hirugarrenekin? Horrela bada, ikastetxeak eta hirugarrenak trukatu dituzten datuak babesteko akordio bat garatzea eskatuko zaio datu-administratzaileari. Datuak babesteko akordioa egiteko ondoko informazioa eman beharko da: • Zer, nola eta noiz trukatu edo trukatuko dira datuak. • Zein da trukearen xedea.
Argazkiak/bideoak		Bideoa eta/edo argazkia akademia- edo eskola-jardueratik at egin al da? Argitaratuko al da? Nola eta noiz? Sare sozial, komunikabideak, marketin-edukiak, etab. Erantzuna baiezkota bada, irudiak erabiltzeko baimenaren inprimakia eskatu beharko zaio datu-administratzaileari (gurasoen adostasuna), jardura honetarako. Ondoko informazioa eman beharko da: • Zein da bideoaren eta/edo argazkiaren edukia? • Zeinek eta non egin du eta non gorde du bideoa eta/edo argazkia? • Zein da bideoaren eta/edo argazkiaren helburua?
Galdera horien erantzunaren arabera, bi guraso/tutoreen sinadura eskatu beharko da; adingabeen irudien erabilerak marketin- edukietan, adibidez, bion baimena beharko du.		

Ebaluazioaren ardura duen irakaslearen sinadura:
 Ongizateko eta Babesko koordinatzailearen sinadura:
 Datuen babeserako arduradunaren sinadura (beharrezkoa balitz):
 Atalburuaren sinadura:

Data:
 Data:
 Data:
 Data:

Txangoa eta gero, jar zaitez harremanetan Ongizateko eta Babesko koordinatzailearekin, Arriskuen Ebaluazio honetan jasotako jazoera, arrisku edo informazio desegoki guztien berri emateko, aintzat har daitezkeen etorkizunean leku horretara egingo diren bisitetan.

Laburbilduz, lehen mailako prebentzioak indarkeria-egoerak eta ikasleen garapen eta ongizaterako bestelako arrisku guztiak saihestea eta ikastetxea espazio seguru eta babeslea bilakatzea xede duten ekintzak biltzen ditu. Ikasleen babesari eta ongizateari loturiko xedeei buruzko adierazpen batetik hasiz, arriskuak identifikatuz, bizikidetza-planean eta Urteko Plangintza Orokorrean txertatu beharko diren dagokion prebentzio-estrategiak eta esku-hartzeak definituz eta, azkenik, beharrezko prozedura seguruak garatuz. Lehen mailako prebentzioko lanak bigarren eta hirugarren mailetak prebentzio-ekintzak errazten ditu; ondorioz, ikastetxeak arreta berezia eskaini beharko lioke lehenari.

Ahal dela, hezkuntza-komunitateak haurren babesari eta ongizateari esleitzen dion denboraren % 80k lehen mailako prebentzioa izan beharko luke jomugan.



Bigarren mailako prebentzioa

Bere xedea da haurrengan eragin negatiboa duten egoerak identifikatzea eta kudeatzea, egoeren areagotzea saihestuz eta beharrezko bitartekoak emanaz hezkuntza-komunitateko kide ezberdinei, familia barne, egoerari buelta emateko.

Bigarren mailako prebentzioa

Bigarren mailako prebentzioak haur edo nerabe baten ongizatea arriskuan jarri eta bere garapen fisiko, kognitibo, emozional edo sozialaren alderdiren bat kaltetu ei duten balizko egoerak goiz identifikatzea eta kudeatzea xede duten esku-hartze guztiak biltzen ditu. Esku-hartze horien xedea da egoera horien areagotzea saihestea. Horretarako, beharrezko laguntza-bitartekoak emango zaizkie hezkuntza-komunitateko kide guztiei, familia barne, detektatutako egoera erreparatzeko. Esku-hartze horiek momentuen arabera bana daitezke:

Detekzio goiztiarra

Eskola-komunitateko kide guztiak inplikatzeko dituzte irakasleak, babeseko langileak, beste enpresa laguntzaile batzuk, familiak eta ikasleak. Detektatzea eta informatzea guztion lana da eta funtsezko ardatza da ingurune seguru bat eraikitzeko eta haurrak babestu nahian ahal bezain laster esku hartu ahal izateko.

Informazioa biltzea

Informazioa biltzea Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearen eta zuzendaritza-taldearen berezko ardura da eta haurraren egoerari buruz eskuragarri dagoen informazio guztia biltzean datza.

Gure lan-metodoan, eta haurrak babesteko politikak urte luzez aplikatu eta gero, detekzio eta esku-hartze goiztiarrak txertatzea erabaki dugu. Izan ere, uste dugu arrisku-egoera gehienak normalean “garrantzi txikikotzat” jo izan ditugun adierazleen bitartez detekta daitezkeela: gurasoen isiltasuna biltzeko deialdien aurrean, egokiro justifikatu ez diren asistentzia-faltak edo ikasgelan lo hartzen ohi duen ikasle bat, esaterako. Askotan adierazle horiek aintzat hartu beharreko egoera baten alderdi ikusgarria baino ez dira. Adibide gisa gerezi multzo bat hartu dezakegu: gerezi bat hartzen dugunean beste gerezi batzuk lotuta dauzka, lehenarekin batera aterako direnak; “garrantzi txikiko” adierazle bat detektatu eta tira egiten badugu, askotan, eta arretaz jarduten bagara, beste arazo batzuk ere ateratzen direla ikusiko dugu. Garrantzitsua da langile guztiak prestatzea behaketa lan hori egiteko, arreta deitzen diena erregistratu eta, hala badagokio, egoeraren berri emateko. Horregatik guztiagatik, oso garrantzitsua da adierazle hauen inguruko informazioa ematea pertsona zehatz batzuei, informazio hori erregistra dezaten; zeren, bestela, partzialki aztertuz gero, erabat kaltegabekotzat jo dezakegu baina osotasunean aztertuz gero, ikaslearentzat kaltegarria den egoera baten seinale izan daiteke.

Aginte eskudunak jakinaraztea, beharrezkoa bada

Nazio-mailako legedian xedatutakoaren arabera –ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa, haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteko (LOPVI), 16. artikulua–, ikastetxeak eta bertan lan egiten duten pertsonak legez behartuta daude haurrek pairatzen dituzten indarkeria-egoera guztiak jakinaraztera. Era berean, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikulua dio arrisku- edo babesgabekotasun-egoeraren bat detektatu duen edozein herritar agintariei egoera jakinaraztera eta, hala badagokio, adingabeari laguntzera behartuta dagoela.

Esku-hartze horiek guztiak zailak dira eta mugak eta zuhurtzia eskatzen dituzte. Haurrak eta nerabeak babestea xede duten esku-hartze guztiek eragile ezberdinen esku-hartze bateratu eta koordinatua eskatzen dute. Premiaz esku hartzeko beharra dagoenean, segurtasun indar eta kidegoei egoeraren berri emateko aukera aztertu beharko da, bai eta haurra babesteko ondoren hartuko diren neurriak baloratu ere.

● 6. JARDUERA-ILDOA

Arriskuak identifikatzea

Ikastetxeko langile guztiek (berezkoek zein zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresetakoek) gai izan behar dute ikastetxearen esku-hartzea eskatzen duen egoeraren bat azaltzen duten adierazleak identifikatzeko, bai eta egoeraren berri ikastetxeko pertsona egokiei emateko ere: indarreko legediaren arabera, pertsona hori Ongizateko eta Babeseko koordinatzailea izango da.

Arrisku- edo indarkeria-egoera bat (gurasoen arteko gatazka batean harrapatuta dagoen haur bat, esaterako) edo haurra kalte dezakeen edozein gertakari (buruko- osasuneko nahasmendu bat bere zaintzaile nagusietako batean, adibidez) detektatzeko edo horren inguruko informazioa biltzeko era desberdinak daude:

- Haurrak edo berarekin harreman zuzena duen beste pertsona batek ikastetxeko langile edo ikaskide bati hitzez adierazi dion testigantza zuzenaren bitartez.
- Haurra arriskuan jarriko duten ekintzen lekuko zuzena izanaz.
- Ikaslearen garapenerako kaltegarria den zerbait gertatzen ari dela adierazten duten adierazlearen bitartez.

Arrisku-adierazlearen inguruko informazio-iturri asko daude. Horrenbestez, garrantzitsua da 1/1996 Lege Organikoa eta autonomia erkidegoan eskudunak diren erakundeek erabiltzen dituzten adierazleak kontsultatzea. Erabilgarria da, halaber, autonomia erkidego ezberdinetako hezkuntza-agintariak garatu dituzten eta ikastetxe guztiei bidali zaizkien protokoloak ere aztertzea.

Oro har, bi adierazle mota nagusi bereiz daitezke:

Estatiko biopsikosozialak; haurrak berez dituen edo zuzenean lotuak, nekez alda daitezkeenak: haurraren nortasuna, haurraren edo familiaren historia, patologia, etab.

Dinamiko biopsikosozialak; aldagarriak dira: familia-antolaera, gurasoen estiloa, haurraren gauzei aurre egiteko estrategiak, etab. Baliteke haurrak berak hezkuntza-komunitateko kideren batengana jotzea, gertakari ezberdinen berri emateko helburuarekin. Horregatik, adierazleak ezagutzeaz gain, ikastetxeko profesionalek testigantza jasotzeko gai ere izan behar dute. Haur baten testigantza jasotzeko erak eragin handia dauka helduek eskaini diezaioketen babesari buruz haurrak duen itxaropenetan, bere konfiantza areagotzen du eta birbiktimizazioa ekidin dezake.

Haurren aurkako indarkeria ikusezin bihurtzen duen arrazoi bat da helduek gaitasun urria dutela haurrek beraiek eman duten testigantza aurrean erantzun egoki, sentibera eta eraginkor bat emateko.

Hezkuntza Legeak irakasleei esleitzen dizkien eginkizunetako bat da “ikasleen garapen intelektual, afektibo, psikomotor, sozial eta morala zaintzea” (2/2006 Lege Organikoa, 91. artikulua). Horrek esan nahi du, ez bairik gabe, irakasle guztiek entzun eta artatzeko gai izan behar dutela. Ikastetxeko beste langile guztiak ere inplikatu beharko dira, noski. Izan ere, haurrek eta nerabeek sentitu behar dute euren inguruan dituzten helduek hezi, zaindu, gidatu eta entzuten dituztela eta beren arazoei aurre egiteko edo beren lorpenak partekatze eskuragai dituztela. Haurrek, oro har, konfiantza sentitu behar dute beren barne-barneko gaiez gainontzeko pertsonekin hitz egiteko.

Arrisku-seinaleak identifikatzea guztion erantzukizuna da eta, horrenbestez, hezkuntza-komunitate osoak gai horren inguruko prestakuntza jaso beharko du.

6.1 TRESNA

Detekzio goiztiarra

Zer da?

Ikasleek ikastetxea norbere burua adierazteko eta entzuna izateko espaziotzat hartzen dutela bermatu beharko da. Haurren parte-hartzeak haur eta nerabeen ongizatea kaltetzen duten egoerak goiz detektatzen lagun dezake. Haurrek eta nerabeek beren burua askatasunez adierazteko gai direla sentitzen badute, bestela detektatuko ez genituzkeen egoerak komunikatuko dizkigute. Horrenbestez, aktiboki entzun ahal izateko afektibotasun kontzientea egokiro maneiatu beharra dago.

Nola erabiltzen da?

Proposatu den gidak haur edo nerabe bati entzuteak dakarrenaren inguruko hausnarketa kontziente bat egiten laguntzen du, bai eta gaitasun hori hobetzen ere. Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileak gako hauek beste irakasle guztiak eta ikastetxeko bestelako profesionalak hezteko erabil ditzake.

Entzute-gune bat sortzeko gakoak

Gakoak	Nola?
Espazioa garrantzitsua da	Haurrarentzako lagunkoia den espazio bat aukeratu behar da hitz egiteko seguru senti dadin. Gainera, etenaldirik egongo ez den denbora eta espazioa aukeratu behar dira. Hizketaldia hasi aurretik, beharbada, denbora bat beharko dugu egokitzeke eta hitz egiten hastean, garrantzitsua izango da etenik ez egotea.
Gure erreakzio propioak kontrolatzeak duen garrantzia	Haurrek, askotan, zerbait ondo ez dagoela senti badezakete ere, ez dira egoeraren larritasunaren jakitun; gure erreakzioak, horrenbestez, beren kezka eta beldurra handi ditzake. Funtsezkoa da lasai mantentzea, kontatzen ari direna zernahi dela ere. Saia zaitez iritzirik edo gomendiorik ez ematen, baloraziorik ez egiten edo egoera ez minimizatzen, entzute-ariketa ez zailtzeko.
Ez finkatu gidoirik	Haur batekin hitz egiten hasi eta gertatu dena edo nola sentitzen den ulertzen saiatzen garenean, galderez osaturiko gidoi bat izateak (bai edo ez erantzuteko galdera itxiak direnean, bereziki) jasotako informazioa baldintza dezake edo ariketa hori itaunketa bat bilakatu, non haurrak bere ustez entzun nahi dugun hori esango digun. Haurrak kontatu diguna aintzat hartuz egin beharko dira galderak.
Ez sortu itxaropenik; ez egin beteezina den promesik	Askotan, haur batek laguntza eskatzen duenean egintzat jotzen du helduak, boterezko bere posiziotik, erantzunen bat eman dezakeela beti. Garrantzitsua da haurrari transmititzea bere kezkak seriozki hartu ditugula baina, beti ere, gure esku ez dagoen promesik egin gabe.
Konfidentzialtasuna	Konfiantzazko giro batean emandako informazio hori profesionaltasun eta konfidentzialtasun osoz tratatu beharra dago. Horrenbestez, ez da ikastetxearen barruan partekatuko, egoeraren berri izan behar duten pertsonekin ez ezik (koordinatzailea edo zuzendaritza); ez da eskolatik at partekatuko, ezta ere lagun edo ahaideekin. Profesional gisa, gainezka egin digula eta norbaitekin hitz egin behar dugula sentituz gero, kasuan dagoeneko inplikatura dauden beste profesional batzuegana jo beharko dugu beti.
Afektibotasun kontzientea praktikatzea	Ez dago segurtasuna sentitzerik emozionalki hotza den ingurune batean. Ondorioz, berotasuna eta afektibotasuna ezinbesteko baldintzak dira ingurune bat segurua eta babeslea izan dadin eta haurrak, horrenbestez, askatasun osoz hitz egin dezan.

● 6.2 TRESNA

Haur edo nerabe baten testigantza zuzena jasotzeko gida

Zer da?

Hezkuntza-komunitateko profesional guztiak haur edo nerabe baten testigantza jasotzen laguntzeko gida bat da. Lan-tresna honek entzuteko eta galdetzeko pautak batzuk eskaintzen ditu, haur bat pairatu duen edo pairatzen ari den egoera zail bati buruz azalpenak ematen dizkigunerako entzute prozesu horretan laguntzeko.

Nola erabiltzen da?

Gida hau langile guztiekin partekatu beharko da, prestakuntza-saioen bitartez; eta langile berri bat kontratatzen den bakoitzean. Hezkuntza-komunitate osoak esku-hartzeren bat eska dezakeen egoera bati buruzko testigantza baten aurrean jarduten jakin behar du.

Garrantzitsua da aintzat hartzea haurrak kontatu digun hori delitu izan daitekeenean, sexu-abusuen, etxeko indarkeriaren edo antzeko kasuetan adibidez, poliziari jakinarazi behar diogula lehenik eta behin; eta poliziak abiatuko duela dagokion ikerketa. Horrexegatik, horrelako kasuetan oinarritzko informazioa biltzera mugatuko gara, sakondu gabe, eta profesional aditu batek egin beharko ditu dagozkion galderak. Honela, ez dugu haurraren testigantza kutsatuko.

Testigantza gida

Kontuan izan:

- Arretaz entzun.
- Ikaslea lasaitu.
- Egokiro erreakzionatu.
- Haurrak kontatu duena erregistratu.

Zer egin behar duzu haur batek zugana jotzen badu gaizki pasatzen ari dela, tratu txarren edo kezkatzen duen beste edozein egoeraren biktima dela esateko? Normala da gainezka eta harrituta sentitzea. Zer egin behar dugu kasu hauetan? Nola erreakzionatu?

Zaila egiten zaigu haurren aurkako indarkeria edo tratu txarrak ulertzea; eta are zailagoa da gaia jorratzea. Indarkeriaren biktima diren edo egoera kaltebera batean dauden haurrek indarkeria gauzatzen dutenen presioa senti dezakete gertatzen ari denaz ez hitz egiteko edo lotsatu daitezke pairatzen ari diren egoeraz edo sentimenduez hitz egiterako orduan. Horrexegatik, adre asko behar da helduren bati kontatzeko. Zailtasun askori egin behar diete aurre: zer gertatzen ari den ulertu, gertatutakoa hitzez adierazi eta beren kontaketa inork ez sinesteko beldurrari aurre egiteko gai izan behar dute. Horrexegatik, lasai mantendu beharra

dago, eta babes osoa eman gertatzen ari zaiona kontatu nahi digun haurrari. Ondoko oharpenek haurrari kalte berririk ez sortzen edo, hala badagokio, etorkizunean ikerketa penala bilaka zitekeen prozesu horretan ez nahasten lagunduko digute.

Entzun

- Haurrari beste inork entzun gabe hitz egiteko aukera emango dion espazio bat bila ezazu.
- Dioena entzun ezazu, hunkipena edo sinesgaiztasuna agertu gabe. Haurren aurkako indarkeria bezalako berri hain desatsegin eta txundigarriaren aurrean, ukapena eta minimazioa ohiko erreakzioak dira. Kontatzen ari dena ez onartzea edo ukatzea edo esaten ari denaren aurrean hunkipena edo nazka agertzea kaltegarria izan daiteke: haurra bakarrik senti daiteke, hitz egiten jarraitzeko beldur.
- Esaten ari dena onartu, iritzirik eman gabe. Entzutera muga zaitetz.
- Serioski hartu esaten ari dena.

Testigantza gida (jarr.)

Lasaitu

- Haurra lasai ezazu, beteezina den promesik egin gabe (“hemendik aurrera dena ondo joango da”, adibidez). Garrantzitsua da haurra errudun ez sentiaraztea, ezer txarrik egin ez duela azaltzea eta esaten ari dena oso seriozki hartzen ari garela ulertaraztea.
- Ez agindu konfidentzialtasunik; ez esan sekretua gordeko duzunik zeren, haurrak adierazi duen egoeraren arabera, beharrezkoa izan daiteke egoeraren berri ematea aginte eskudunei.
- Bera babesteaz eta laguntzeaz arduratuko diren pertsonen, baina horiei bakarrik jakinaraziko diezula esan haurrari.
- Haurra lasai ezazu; hain pertsonalak diren gai horiek partekatzerakoan egin duen esfortzua aitortu iezaiozu.

Egokiro erreakzionatu

- Haurrarekin komunikazio aproposa mantendu, bere adina, ulermena eta nahiak aintzat hartuz. Alderdi hau bereziki garrantzitsua da haur desgaituen eta ama-hizkuntza komunikazio-hizkuntza ez duten haurren kasuan.
- Isilik entzun, arretaz eta pazientziaz. Ez hartu ezer segurutzat, ez espekulatu edo presazko ondorioz atera.
- Ez arakatu, ikertu edo galdekatu; eta ez jarri zalantzan haurraren sinesgarritasuna. Gogoan izan, adibidez, haur-abusuei buruzko komunikazio batek haurrak babesteko ekipoaren, gizarte zerbitzuen esku-hartzea ekarriko duela eta ikerketa penal bat abiaraz dezakeela. Horrenbestez, ez egin esku-hartze horiek arriskuan jar dezakeen gauzarik. Gertatutakoa bere hitzak erabiliz adierazten utzi haurrari, galdera maltzurrik egin gabe.
- “Kontatu nahi didazun beste zerbaite al dago?” bezalako galdera irekiak egin itzazu. Erantzuna baldintza dezaketen galderak ekidin itzazu (Gaizki sentitu al zinen?). Adibide horren ordez, “Nola sentitu zinen?” galde daiteke, era irekian, haurrak askatasunez hitz egin dezan.
- Ez eskatu haurrari zuri kontatu dizuna beste langileren bati errepikatzeko. Azal iezaiozu jarraian egin beharko duzuna; eta zeinekin hitz egin beharko den.

- Berehala, jar zaitez harremanetan Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearekin edo, kanpoan badago, zuzendaritza-taldeko norbaitekin.

Egin ditzakezun zenbait galdera erabilgarri

- Zer gertatu da? Noiz eta non gertatu da? Egoeraren deskripzio orokor bat lortzen saia zaitez.
- Zeintzuk dira gertakarian inplikaturik dauden pertsonak?
- Noiztik gertatzen da?
- Nola sentitzen zara eta zer egiten duzu gertatzen denean?
- Beste norbaitek ezagutzen al du egoera?
- Beste norbaiti kontatu al diozu? Nola erreakzionatu zuen?

“Zure ustez, zergatik gertatu da edo, zure ustez, zergatik egin du?” galdera desegokia izan daiteke, indarkeria arrazoiaren baten bitartez edo berak egin duen zerbaite bidez ere justifika daitekeela pentsa daitezake haurrak.

Testigantza erregistratu

- Une horretan, eta ahal bada, ohar oso laburrak idatz itzazu eta, ahal bezain pronto, gertatutakoa xehetasun gehiagorekin idatz ezazu. Memoria engainagarria da eta denbora joan ahala informazioa galtzera edo aldatzera garamatza.
- Ez suntsitu jatorrizko oharrak.
- Haurraren eta testuinguruaren inguruko informazioa arrisku-adierazleak jakinarazteko fitxan erregistratu eta, ondoren, Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileari bidali.
- Ondokoak idatzi: data, ordua, lekua, haurrak erabili dituen hitzak eta zure aurrean nola aurkeztu zen. Erabilitako hitzak eta esamoldeak erregistratu behar dira, hitz gordinak eta argota barne.
- Horrez gain, adierazpenak eta behagarriak diren datuak erregistratzea komeniko litzateke, zure interpretazioen edo usteen ordez.

● 7. JARDUERA-ILDOA

Barne-mailako koordinazio-sare bat sortzea

Ongizateko eta babeseko eginkizunak koordinatuko dituen profesional bat izendatzearen helburua da prebentzio-, babes- edo erantzun- prozedurak indartzea eta zuzentzea. Haurrak eta nerabeak babesteko ardura, ordea, erakunde osoarena da. Horretarako, hezkuntza-komunitate osoak erantzun homogeen, sistematiko, adostu eta eraginkor bat eskaini behar du.

Haur edo nerabe batean eragin eta esku-hartzeren bat eskatzen duen egoera baten susmoak edo zantzuak badaude, hurrengo pausoa da ikastetxearen barruan jakinaraztea. Barneko jakinarazpen hori Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileari egingo zaio. Honek, ikastetxeko zuzendaritzarekin eta ekipoko beste profesional batzuekin batera, jarraitu beharreko pausok definituko ditu, bai eta hartu beharreko neurriak proposatu ere. Jakinarazpen hori idatziz erregistratu beharko da, era estandarizatuan, daturik garrantzitsuenak jaso direla bermatu eta informazioa etorkizunerako gordeta dagoela ziurtatzeko.

Informazioa idatziz jasotzeko arrazoiak ondokoak dira: Hasteko, hautemandako horren deskripzioa arretatsuagoa eta hausnartuagoa da idatzen dugunean. Bestalde, inplikaturako eragileei informazioa pasatzerakoan galdu edo aldatuko ez dela ziurtatzen du idazkerak; eta, amaitzeko, idatzizko erregistro bat edukitzea ahalbidetzen digu. Izan ere, etorkizunean, erregistro horri esker, zer gertatu den, noiz, nola, etab, jakin ahalko dugu. Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileari idatziz bidali behar zaion informazio hori sistematizatzeko era ezberdinak daude. Gida honek era bat proposatzen badu ere, ez da baztertzaila, ezta bakarra ere.

Koordinatzaileak adostutako formatu bat ezarria dagoela, egoera jakinarazteko formatu horri erabili beharra dagoela eta aipatua betetzeko modua, bidaltzeko kanala eta eskuratzeko tokia azaldu beharko die ikastetxeko beste langile guztiei.

● 7.1 TRESNA

Esku-hartzea eskatzen duten egoerak barne-mailan komunikatzeko fitxa

Zer da?

Koordinatzaileari informazioa helarazteko erabil daitekeen fitxa bat proposatzen du tresna honek. Haur baten ongizatean eragiten duten egoeren susmoak edo zantzuak jakinarazteko sistema hau ikastetxeko langile guztiek erabili beharko dute. Garrantzitsua da aintzat hartzea premiazko neurriak eskatzen dituzten kasuetan jakinarazpen honek berehalakoa izan behar duela, eta ahozkoa ziurrenik. Erregistro idatzia ondoren egin beharko da.

Nola erabiltzen da?

Proposatzen den fitxa lehenetsi diren datuak jasoz beteko da. Informazioa osatzeko, oharren atala erabil daiteke. Bertan, esanguratsutzat hartu dugun informazio guztia idatziko dugu.

IKASLEAREN IZENA ETA IKASMAILA	Kontatu dizun informazioa edo ikusi ahal izan duzuna idatz ezazu. Hitzez hitzeko esamoldeak jasoz gero, ikasleak erabili duen hizkuntzan edo argotean jaso itzazu. Ahal dela, ez erabili laburdurarik edo espezifikoak ez den daturik. Ikusi edo jaso duzun hori deskriba ezazu, ez egin interpretaziorik eta azalpen-inferentziak ekidin itzazu. Gertakariak eta ahozko komunikazioari lotuta ez dagoen hori bereiz itzazu. Azaldu: Zeinek, Noiz, Non, Zer, Nola (ez Zergatik). Komunikazioaren data
INFORMATZEN DUEN PERTSONAREN IZENA	
ZEINI JAKINARAZTEN ZAIO	
INFORMAZIO-BILTZEAREN DATA, TESTUINGURUA ETA ORDUA	

● 7.2 TRESNA

Komunitate-sareko bitartekoak eta programak mapatzea

Gertu dituen eta haurren ongizatea eta babesa bermatzeko eta/edo sustatzeko eskumenak dituzten bitartekoak eta zerbitzuak identifikatuta izan behar ditu ikastetxeak. Koordinatzaileak ere eskuragarri dauden bitarteko horiek ezagutu beharko ditu eta gizarte zerbitzu, osasun, babes, segurtasun indar eta kidego eta antzeko arloetako profesional ezberdinen ekintza koordinatua bultzatu beharko du. Aurreko hori ezinbestekoa da haur eta nerabeen babesa bermatuko duen erantzun bat eskaini ahal izateko.

Zer da?

Ikastetxea hartzen duen udalerrian kokatuta dauden bitarteko eta programa ezberdinak mapatzeko gida bat eskaintzen da. Gida hau erabilgarria izan daiteke ikastetxeak erabil ditzakeen programak identifikatzeko edo arreta behar duten egoerak beren gain har ditzaketen bitartekoak identifikatzeko.

Nola erabiltzen da?

Txantiloia ikastetxetik gertu egon daitezkeen (edo ez) bitarteko orokor batzuk zehaztuta ditu. Ondorioz, egin beharreko lana da ikastetxetik gertu benetan dauden bitartekoak eta programak bilatzea eta identifikatzea; izan ere, honela, kanpoko koordinazio-sarea identifikatu ahal izango da. Lan hori aldeztu aurretik egin beharra dago, eman beharreko erantzuna bizkortzeko. Garrantzitsua da aintzat hartzea udalerrri, mankomunitate, kontzeju, kabilo eta antzeko bakoitzak eta autonomia erkidego bakoitzak bitarteko ezberdinak dituela eta arretarako zirkuituak, ondorioz, ezberdinak direla. Koordinatzaile bakoitzak bere eremuan dagoen guztiaren mapa osatu behar du (tokiko, lurralde-, erkidego- edo estatu-mailako erakundeen mendeko bitartekoak izan daitezke).

Ikastetxe askok lan hori egiten duten profesionalak dituzte dagoeneko (KZIT edo antzekoak). Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearen eginkizunak beste norbaitek betetzen baditu, koordinatzaileak profesional horren laguntza kontuan izan beharko du.

Proposatutako ereduan jasota dauden bitartekoei dagokionez, horietako bakoitza identifikatu ondoren, beraiekin harremanetan jarri eta, posible izanez gero, aurrez aurre bisitatzea gomendatzen da. Deribazio edo koordinazioaren bat askoz eraginkorragoa eta azkarragoa da bitartekoa eta bere langileak zuzenean ezagutzen baditugu. Gure proposamena da bilaketa hori publikoak diren bitartekoen eremuan egitea. Ikastetxe pribatuaren kasuan (funts publikoak jaso ala ez), beraiek erabaki



beharko dute profesional edo bitarteko pribatuarekin joan ala ez.

Identifikatutako bitarteko bakoitzari dagokionez, datuak eta harremanetarako informazioaz gain, ondoko inbentario informazioa ere jasotzea gomendatzen da:

- Sarrera mota: bitartekoak unibertsalak ala deribazio bidezkoak izan daitezke. Unibertsalak dira hiritarra zuzenean hartzen dutenean. Deribazio bidezkoak dira gizarte zerbitzuen aurretiko deribazio bat eskatzen dutenak.
- Zerbitzuen karta: zerbitzuen kartak bitarteko batek eskaintzen dituen zerbitzuak zerrendatzen ditu: aholkularitza juridikoa edo psikologikoa edo interbentzio-ibilbide bat eskaintzen ote duen ala ez, adibidez.
- Arreta-ordutegia: bitartekoaren ordutegia. Bitarteko batzuk larrialdietarako izan daitezke eta, ondorioz, 24 orduz daude irekita; beste batzuek, ordea, ordutegi mugatua dute.
- Deribatutako irizpideak: Zer nolako egoeretan deribatu beharko litzateke? Zer nolako egoeretan bitartekoak ez du laguntzerik? Aurretiko baldintza bat behar al da; salaketa indarkeria-kasuetan, adibidez?

Arloak	Bitartekoak eta	Harrera mota: unibertsala edo deribazio bidezkoa	Erantzun- zerbitzuak	Kontaktua/ telefonoa/ Posta elektronikoa/ ordutegia	Deribatze irizpideak edo baldintzak	Nola informatu
GIZARTE ZERBITZUAK ETA ESPEZIALIZATUAK	Erreferentziazko Gizarte Zerbitzu Zentroa. Haur eta Familientzako Programaren arduraduna					
	Arrisku-egoeran dauden Haurren Arretan espezializatuta dauden gizarte zerbitzuak					
	Autonomia erkidegoko Haur Zuzendaritza Nagusia					
FAMILIA	Aholkularitza juridikoa familiarako					
	Arreta, tratamendua eta indarkeria prebenitzea familian					
	Familia-bitartekaritza					
	Familia-terapia					
	Guraso eskola, familientzako tailerrak eta taldeak					
	LGTBIQ orientazio zerbitzua					
	Lehen haurtzaroari buruzko programak					
	Orientazio telefonoa					
IMMIGRAZIOA	Heziketa eta lanari buruzko aholkularitza eta orientazioa					
	Hizkuntza ikastea (gaztelera)					
	Aholkularitza juridikoa					
	Arreta psikologikoa					
ADIKZIOAK	Prebentzioa eta laguntza adikzio-arazoak dituzten gazte/adingabeei eta beren familiei					
	Droga-mendekotasunen arreta eta jarraipena					
	Gazte eta hurrekin esku-hartzea aisialdi-espazioetan					
	Adikzio teknologikoak prebenitzeko eta artatzeko programak					
	Ludopatiak prebenitzeko eta artatzeko programak					



Arloak	Bitartekoak eta	Harrera mota: unibertsala edo deribazio bidezkoa	Erantzun- zerbitzuak	Kontaktua/ telefonoa/ Posta elektronikoa/ ordutegia	Deribatzen irizpideak edo baldintzak	Nola informatu
OSASUNA	Erreferentziako osasun-zentroa					
	Erreferentziako osasun-zentroko gizarte-langilea					
	Erreferentziako haur eta gazteentzako ospitalea					
	Osasuna sustatzea xede duten heziketa- programak					
OSASUN MENTALA	Erreferentziako osasun-zentro eta psikiatra					
	Erreferentziako osasun mentaleko zentroa					
	Esku-hartze psikologikoa haur eta gazteetan					
	Suizidioa prebenitzeko programak					
DESGAITASUNA	Desgaitasuna Baloratzeko eta Orientaziorako oinarritzko zentroa autonomia erkidegoan					
	Balorazio eta Orientazio psikopedagogikoko zentroak					
	Orientazio psikopedagogikoko zentro espezializatuak					
INGURUNE DIGITALA	DBEA, Lehentasunezko kanala	Egoitza Elektronikoa- Datuak Babesteko Espainiako Agentzia- Komunikazioa				
	Mendekotasun teknologikoak artatzeko zerbitzua					
	IS4Kids/INCIBE	Adingabeak INCIBE				
EMAKUMEA	Emakumeak artatzeko bulegoak/zentroak					
	Sexu-erasoak artatzeko zerbitzuak					
	Emakumeak eta seme-alabak artatzeko zerbitzua					

Arloak	Bitartekoak eta	Harrera mota: unibertsala edo deribazio bidezkoa	Erantzun- zerbitzuak	Kontaktua/ telefonoa/ Posta elektronikoa/ ordutegia	Deribatze irizpideak edo baldintzak	Nola informatu
SEGURTASUN INDAR ETA KIDEGOAK	Polizia Nazionalea	Nazio-mailan: 900202010 Autonomia erkidegoen araberako telefonoa				
	Guardia Zibila	600505152				
	Polizia Nazionalea/Guardia Zibil plan zuzentzailea	900018018				
	Polizia Nazionaleko Familia eta Emakumeen Unitatea, UFAM EMUME Guardia Zibila	900202010 zenbakiaren bidez edo itunpean, Ministerioaren 016 zenbakian				
	Udaltzaingoa:	Telefonoa: 016 Emaila: 016- online@igual dad.gob.es WhatsApp: 600 000 016				
	Zonako agente tutorea	017				
JUSTIZIA	Adingabeen Fiskaltza					
	Emakumeen aurkako Indarkeriako Fiskaltza					
	Biktimak Artatzeko Bulegoa					
	Abokatuen Elkargoa, ofiziozko txandari buruzko informaziorako					
	Ezgaitze eta tutoretza prozedurari buruzko Prestakuntza eta Informazio Programak					
BESTE BATZUK						

● 8. JARDUERA-ILDOA

Kasuak kudeatzea: informazioa biltzea

Ikastetxeko haur edo nerabe baten bizitzan kezkarria den zerbait dagoela dioten komunikazioa jaso osteko hurrengo esku-hartzea alderdi ezberdinen mende egongo da: larritasuna, testuingurua, inplikatuak, sorturiko kalteak, etab. Jorratuko den egoerak zehaztutako protokolo bat izan dezake ezarrita; edo ez. Protokolo bat badago, horri jarraituko diogu. Horrenbestez, koordinatzaileak nazio-mailan eta bere autonomia erkidegoan indarrean dauden protokoloak ezagutu behar ditu beti; eta horien berri eman behar dio hezkuntza-komunitateari, eginiko informazio- eta prestakuntza-saiotetan. Bestela, jasotako informazioaren azterketatik abiatuta eta zuzendaritza-taldearekin batera eta, beharrezkoa balitz, baita kanpoko babes-sarearekin batera ere, gauzatu beharreko esku-hartzeak definituko dira.

Balitzko indarkeria-baten informazioa edo adierazleak ezagutzen dituzten kudeaketa-arduradunek, gauzatu beharreko esku-hartzeak planifikatzerakoan, bi galdera erabilgarri planteatu ditzakete egoera argiagoa egiteko: «**zeren aurrean gaude**» eta «**zenbat denbora daukagu**».

Askotan, informazioa osatu beharra dago. Egoeraren arabera, informazioa osatzeko, lehen pausoa da barne-mailan eskuragarri dagoen informazioa biltzea: asistentzia, txosten akademikoak, elkarrizketak irakasleekin, iraganean egondako gertakariak, etab.

Ondoren, haurrarekin, familiarekin edo ikastetxeko beste norbait gehiagorekin hitz egin beharra dagoen ala ez erabaki beharko da. Aldi berean, eta horrelakorik balego, espezialisten txostenak ere erabil daitezke informazioa osatzeko. Familia eta haurrekin eginiko solasaldietarako, oinarritzko arau batzuk proposatzen dituzten gida batzuk eskaintzen dira. Halere, profesionalak trebatu beharra dago komunikazio-teknika egokiak barnera ditzaten elkarrizketa horiek garatu ahal izateko.

Indarkeria- edo ongizaterako arrisku-egoeraren bati aurre egiteko adostutako esku-hartzeen artean, gurasoei dagokion informazioa eskaini beharra dago. Informatzeko betebeharrak hori kasuz kasu baloratuko da, haur eta nerabeen eskubideak uneoro errespetatuz eta indarreko lege-betekizunak betez.

● 8.1 TRESNA

Esku-hartzeak planifikatzeko fitxa

Zer da?

Esku-hartzea eskatzen duen egoera bat detektatu ostean gauzatu beharreko jarduketak planifikatzeko fitxa bat da. Esku-hartzeak eskematizatzea du helburu, bi galderari erantzunez: **Zer gertatu da? Zer nolako neurriak hartuko dira?**

Nola erabiltzen da?

Proposatutako diren galderei erantzuteko egituratu da fitxa. Hobeto uler dadin, adibide bat ere jaso da. Galdera bakoitzerako zutabe ezberdinak ezartzen dira, idatzi beharreko funtsezko informazioarekin. Fitxaren lehen zatia zer gertatu da galderari erantzuten dio eta, besteak beste, ondoko datuak biltzen ditu: noiz gertatu zen edo noiz detektatu zen egoera, zeini eragin dio eta esku-hartzeko gehieneko epea. Azken hori da ikastetxeak erantzun bat emateko duen denbora eta

egoera bakoitzaren arabera aldatzen da: egun horretan bertan esku-hartzea eskatzen duten egoerak dauden bezala, beste batzuen kasuan beranduago esku-hartzea komeni da.

Fitxaren bigarren zatia garatuko diren parte-hartzeen garapena eta arduradunen betebeharra lantzen ditu. Interesekoak diren esku-hartzeak proposa daitezke, beti ere kasu bakoitzaren beharrei erantzuten badiote. Azkenik, administrazioen arteko komunikazioari buruzko atal bat jasotzen du. Bertan, jakinarazi beharreko agente eskudunak adierazten dira, 8/2021 Lege Organikoaren 16. artikulua, 1/1996 Lege Organikoak eta erkidego-mailako beste arau batzuek diotenari jarraiki.

Fitxa bakoitza identifikatu beharra dago. Identifikazio horretarako ikaslearen izena ez erabiltzea gomendatzen da. Onena litzateke identifikazio-sistema bat ezartzea, kasua aipatzen den bakoitzean anonimotasuna mantentzeko.

Esku-hartzeak planifikatzeko fitxa

Identifikatzailea	XXX
-------------------	-----

Zer gertatu da?				
	Zer?	Noiz?	Kaltetutako pertsonak	Erantzuteko gehieneko epea
Esku-hartzea eskatzen duten egoerak	Azken bi asteotan lau aldiz, gurasoak ez dira gaixoa zegoen alaba jasotzera bertaratu, denborarik ez zutela adieraziz	2023/01/30	J G F	
	Tutoreak dio materialik gabe etortzen dela ikasgelara eta gurasoek ez dietela bere komunikazioei erantzuten	2023/02/15		
	Ateko zaindariak dio amak bakarrik utzi zuela ate aurrean, euripean, eskolak hasi baino ordu-erdi lehenago.			

Zer nolako neurriak hartuko dira?			
Proposatutako esku-hartzeak	Zer?	Noiz?	Nork?
Hasierako informazio-biltzea	Informazioa sistematikoki biltzea, ikastetxeko erregistro ezberdinetan	2024/02/02	Ongizate eta babeseko koordinatzailea
Beste esku-hartze batzuk			
Gainbegiratzea eta babesa	Adi egotea eskatuko zaie irakasleei		

Komunikazioa			
Administrazio-jakinarrak	Zer jakinarazi da?	Noiz?	Zeinek jakinarazi du?
Hezkuntza-ikuskaritza	Esku-hartzea eskatzen zuen egoera	2023/02/01	Koordinatzailea eta zuzendaritza-taldea
Gizarte Zerbitzuak	Jakinarrak bidez	2023/02/01	Koordinatzailea eta zuzendaritza-taldea
Segurtasun indar eta kidegoak			
Beste batzuk...			

● 8.2 TRESNA

Ikasleak elkarriketatzeko eredua

Zer da?

Haurrarekin mantenduko den solasaldia gidatuko duen elkarriketa erdiegituratu baten gidoi-proposamen bat aurkezten da.

Nola erabiltzen da?

Iradoki den eredua kasu bakoitzaren testuingurura egoki daiteke. Ongizate eta babeseko koordinatzaileak gida hau edo aukeratu eta garatu duen beste edozein gida haurra elkarriketatu baino lehen ezagutu beharko luke. Elkarriketetarako gida bat erabiltzeak informazio esanguratsuena biltzea xede duen elkarriketaren helburuak zehaztea ahalbidetzen du. Horrez gain, ondoren gertatuko den horri buruz izan ditzaketen itxaropenei dagokienez, haurrari eta familiari informazioa egokia emateko aukera ere ematen du.

Elkarriketen erabilerarekin batera, prestakuntza espezifiko eskaini beharra dago komunikazio-teknikak barneratzeko, horrek elkarriketaren garapena erraztuko baitu.

Haurrak elkarriketatzea

Elkarriketaren xedea da **bizitzen ari den eta kezkatzen gaituen horretaz haurrak esateko duena entzutea**. Haur bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu eta egoera bakoitza ezberdina da. Horrenbestez, egoera beren erara biziko dute eta inguruabar kaltegarri bat identifikatzeko eta horren inguruan hitz egiteko gai izan daitezke, ala ez. Aintzat hartu beharreko baldintzatzaileak dira, besteak beste: adina, garapena, komunikatzeko gaitasuna, pertsonalitatea, gaitasun bereziren bat, etab. Galdetzen zaien bezain pronto asko kontatzen duten haurrak dauden bezala, beste batzuk itxi egiten dira eta ez dute ezer esaten. Oso garrantzitsua da elkarriketa ez behartzea, ezta baldintzatzea ere.

Delitu izan daitekeen indarkeria-egoera baten zantzu argiak baditugu, tratu txarrak, sexu-indarkeria, etab., elkarriketa bertan behera utziko dugu eta, beraiekin premiaz harremanetan jarri eta gero, segurtasun indarren esku utziko dugu elkarriketaren jarraipena. Zenbaitetan, haurrarekin gertatutakoaz hitz egiteak, sexu-abusu batez edo mehatxuez, adibidez, ondoko ikerketa baldintza lezake eta, halaber, birbiktimizazioa ere suposa lezake.

Arrisku baxu edo ertaineko egoera bat bada, hau da, delitutzat ezin den hartu eskola-jazarpena edo

indarkeria eta ikastetxetik edo kanpoko erakundeekin batera lan eginaz jorra badaiteke, beharrezkoa izan daiteke alderdi ezberdinak ulertzea edo jasotako informazioa osatzea, hartu beharreko esku-hartze egokienak erabaki ahal izateko.

Garrantzitsua da **leku eroso eta pribatu bat bilatzea elkarriketarako**. Haurraren eskola-bizitzan gutxien eragingo duen une batean egingo da elkarriketa. Haurraren ondoan eseriko gara, bereizten gaituen inolako oztoporik gabe.

Elkarriketa bi pertsonak egingo dute gehienez eta, ahal dela, haurrarekin konfiantzazko harreman bat duten edo haurrarentzat aginte nahikoa duten ikastetxeko langileak izango dira.

Gure lana ez da egoera bat epaitzea edo baloratzea, baizik eta informazio nahikoa lortzea haurrarentzat egokia izango litzatekeen babesa edo hartu beharreko neurriak erabakitzeke. Harridura-, kritika- edo gaitzespen-keinuak saihestuko ditugu. Ez dugu inoiz gurasoak, ikaslea edo bere familia kritikatu.

Zintzotasuna garrantzitsua da; horrexegatik, zintzotasunez erantzungo diegu haurraren galderei.

Haurrak elkarrizketatzea (jarr.)

Ez diogu inolako konfidentziasunetik eskainiko bere arrisku-egoerari eta tratatu txarrari loturiko informazioari dagokionez.

Argi eta modu ulergarrian hitz egingo dugu, haurrak esaten ari garena uler dezan. Galdera irekiak erabiliko ditugu elkarrizketan eta kontu handiz arituko gara erantzunik ez iradokitzeke.

Elkarrizketa amaituta, gure ateak irekita dituela adieraziko diogu, hitz egin nahi duen guztietarako. Eta bera babestu nahian gauzatuko ditugun esku-hartzeak ere jakinaraziko dizkiogu. Lasaitu egingo dugu, gertatutakoaz inolako errurik ez duela eta gauzak kontatzea eta laguntza eskatzea ona dela ulertaraziz.

Sarrera

- Bere denbora eskertuko diogu.
- Gure burua aurkeztuko dugu: izena eta eginkizunak.
- Elkarrizketaren arrazoiak:
- Informazioa biltzea edo argitzea.
- Presazko neurriak hartzeko beharra dagoen erabakitzeke edo, eskola-jazarpenaren kasuan, ikaslea babesteko.
- Bizitzen ari denak kezkatzen gaituela eta bera laguntzeko gaudela uler dezan: ateak irekita utziko dizkiogu, hitz egin nahi duen guztietarako.
- Kokatzea: Kontatu diguten/ikusi dugun/gertatu den egoeraz kezkatuta gaude... Zer gertatzen ari omen den hobeto jakiteko, zuri entzun nahi dizut. Gertatzen ari dena hobeto ezagutzeak zu laguntzeko era zehazten lagunduko dit. Kontatzen didazun hori, garrantzitsua izango dena zu lagundu ahal izateko, behar duzun laguntza zein den dakiten pertsonekin partekatuko dut.

Ikasleak egin ditzakeen galderak

- Konfidentziasunetik izango al da gure elkarrizketa? Ez da konfidentziasunetik izango zu laguntzeko helburuarekin erabakiak hartu edo neurriak ezarri behar dituzten pertsonentzat. Bai, ordea, beste guztientzat, zure ikaskideak barne. Konfidentziasunetik gorde nahi duzun hori aipaiezadazu eta nola tratatu aztertuko dut.

• Nire gurasoekin hitz egingo al duzue? Zure gaineko ardura dute gurasoek eta, halaber, gertuen duzun babesa dira. Garrantzitsua da, beraz, ikastetxearen eta gurasoen esku-hartzea bateratzea zu laguntzeko. Bizitzen ari zarenean zuzenean lotuta badago zure gurasoetako batek egiten dizun horri, onena ezer ez esatea izan daiteke agian, edo jakinarazteko unerik onena aztertzea.

• Eta nire errua bada? Ez dakigu errudunik ote dagoen ala ez edo inolako erantzukizunik duzun ala ez gertatzen zaizun horretan. Nolanahi ere, gure xedea ez da zu juzgatzea baizik eta zu laguntzea, bizitzen ari zaren egoera horretatik atera zaitez.

Elkarrizketa nola egin

Elkarrizketa irekia eta malgua izan behar du. Gai orokorretatik abiatuta, gauza zehatzagoetara eramane behar dugu. Galdera irekiak eginez hasi eta, beharrezkoa bada, galdera itxien bidez zehaztasunetara iristeko.

Adibidea: Egoeraz beste zerbaite esango al zenidake? Gertatutakoa dakien edo ikusi duen beste norbaite al dago? Zer nolako maiztasunarekin gertatzen da? Zer gertatu zen ondoren?

Ondoren, noiz gertatu zela esan duzu? Nola du izena pertsona horrek? Honakoa bezalako zenbat egoera gogoratzen dituzu?

Ikasleak egoera kontatzen digun ahala, garrantzitsua izango da baieztatzea bere informazioa egokiro ulertu dugula eta, horretarako, “parafraseatzea” oso lagungarria da, hau da, kontatzen ari dena laburbiltzen joatea, esan diguna ñabartzeko edo zuzentzeko aukera izan dezan.

Adibidez: ikasgelan zeundela eta hiru ikaskidek inguratu zintuztela, zure gauzak lurrera bota eta barre egin zutela ulertzen dut, ez da hala? Ikasgelan beste norbaite ere zegoela esan zenuela uste dut; egia al da? Nor zen?

Ez adierazi ohar pertsonalik, egin edo pentsatu behar duenaren inguruan. Gure xedea da informazioa biltzea, ikasleak esan nahi duena entzutea eta ikaslea entzuna sentiaraztea.

Ikaslea triste, urduri edo beldur ikusiz gero, sentimendu hori hitzen bidez adieraz dezakegu, eta nondik datorren adieraz dezala eskatu.

Haurrak elkarrizketatzea (jarr.)

Adibidez: triste, motel ikusten zaitut eta normalean ez zaude horrela; oker al nago? Zer gertatu den kontatuko al didazu?

Ez aipatu zure esperientzia pertsonalak, ez edota zure inguruabarrak edo balorazio partikularrak. Hori eginez gero, bizitzen ari den egoera normala edo ohikoa dela pentsa dezake ikasleak, edo ez dela entzuna izaten ari sentitu ere. Inguruabar bakoitza ezberdina da; egoera batean egokia dena oker izan daiteke beste batean. Eta oso garrantzitsua da beren egoera zehatzari dagokionez entzunak izaten ari direla sentiaraztea.

Esploratu beharreko helburuak edo arloak

Ondokoak elkarrizketaren helburu nagusi gisa identifika ditzakegu:

- Informazio zuzena lortzea haurren aldetik, gertatzen ari zaionaren inguruan.
- Ikasleak izaten ari den eragin fisiko, emozional eta/edo portaerazkoa ezagutzea.
- Kalteberatasun-alderdi ezberdinak esploratzea; horien artean nabarmentzekoak dira:
 - Ikaslearen tratu txarraren edo utzikeriaren arduradun gisa identifikatutako pertsonarekin biltzeko erraztasuna (edo zailtasuna) identifikatzea.
 - Haurrak bere burua babesteko eta zaintzeko duen gaitasuna.
 - Portaera-ezaugarriak.
 - Haurren osasun mentala eta gaitasun kognitiboa.

Ikaslea informatua mantendu


Batzuetan, ikaslearekin berriro ere hitz egiteko beharra dago, hartzen ari diren neurrien edo gertatzen ari denaren inguruko informazioa helarazteko bereziki.

Eragiten dizkieten erabakietan parte hartu ahal izatea, beren gaitasunen arabera, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak jasotzen duen haurren oinarritzko eskubide bat da. 8/2021 Lege

Organikoak berak, 4. artikuluan, ondokoak jasotzen ditu edozein esku-hartzeren irizpideen artean:

- “Adingabeen autonomia eta gaitzea indartzea beren edo hirugarrenen aurka gauzatutako balizko indarkeria-egoerak goiz detektatzeko eta horien aurrean egokiro erreakzionatzeko”.
- “Eragiten dieten erabaki guztietan parte hartzeko haurrek eta nerabeek duten eskubidearen gauzatzea ziurtatzea”.

Printzipio horiek berberak haurrak eta nerabeak babesteko erkidego- eta nazio-mailako beste lege batzuetan ere jasota daude. Beste behin, eman behar diogun informazioa eta erabiliko dugun lengoaia behar bezala kalibratu beharko ditugu, ikaslearen gaitasuna aintzat hartuz eta bere garapen-unearen, ulermenaren eta gertatzen denaren gaineko ardura hartzeko duen gaitasunaren arabera.



● 8.3 TRESNA

Familia elkarrizketatzeko eredua

Zer da?

Familiarekin mantenduko den elkarrizketa erdiegituratu baten gidoi proposamena da. Xede honetarako erabil daitezkeen eta honako hau bezain egokiak diren beste elkarrizketa-eredu asko ere badaude. Tresna honen azken xedea da elkarrizketaren erabilgarritasuna bermatzea, elkarrizketak tratu onaren ikuspegia betetzen duela ziurtatzea eta bilatzen den helburua lortzea.

Nola erabiltzen da?

Elkarrizketa egin baino lehen, Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileak gida aztertu eta ezagutu beharko du, honela argi izango baitu partekatu nahi duen informazioa, bai eta lortu nahi duena ere. Horrez gain, hurrengo pausoen inguruko informazioa eskaintzeko prest ere egon behar du. Ziurrenik, elkarrizketarako gida kasu zehatz horren inguruabarretara egokitu beharko du. Inprobisatzea ez da ideia ona. Zenbat eta zehatzagoa izan familiarekin partekatzen den informazioa eta zenbat eta zehatzagoak izan egiten zaizkion galderak, are eta aukera gutxiago ditugu ondoeza, ukapena, kezka edo alarma sortzeko.

Familia elkarrizketatzea

Elkarrizketaren xedea da seme-alabaren inguruan dugun kezka gurasoekin partekatzea, esanguratsua izan daitekeen informazioa esploratzea, ikastetxearen esku dagoen eta gurasoentzat garrantzitsua izan daitekeen informazioa partekatzea eta familiari haurraren heziketan lagunduko dion plan bat osatzeko eta kanpoko babes-bitarteko baterako balizko deribazio bat egiteko aukera aztertzea; bitarteko horien artean gizarte zerbitzuak ere egongo lirateke, haurraren ongizatearen arriskuari loturiko adierazleak baleude.

Garrantzitsua da leku eroso bat bilatzea elkarrizketarako. Gure jarrerak izan behar du familiarekin batera lan egiteko beharrezkoa den informazioa bilatzearena. Gure lana ez da egoera bat epaitzea edo baloratzea, baizik eta informazioa edukitzea beharrezko babesak planteatzeko, familiarekin batera lan eginez. Zintotasuna garrantzitsua da.

Jaso nahi dugun informazioa gure eskumenekiko eta beharrezkoak diren etorkizuneko esku-hartzeekiko proportzionala izan behar du, besterik ez. Erabilgarria izan daiteke Datuak Babesteko Espainiako Agentziak ikastetxeetarako argitaratu zuen gida kontsultatzea, informazio garrantzitsua

eta garrantzitsua ez dena bereiztea ahalbidetuko diguten irizpideak eskuratzeko.

Sarrera

- Beren denbora eta etorri izana eskertu.
- Gure burua aurkeztuko dugu: izena eta eginkizunak.
- Elkarrizketaren arrazoiak:
- Zure haurraren inguruan ditugun kezkak zuekin partekatzea.
- Elkarren artean ezagutzea.
- Orientazio profesional zehatza proposatzea zuen haurrari laguntzeko.
- Kokatzea: Zuen haurraz kezkatuta gaude zeren ikusi ahal izan dugunez/adierazi duenez... Benetan zer gertatzen ari den jakiteko, zuekin hitz egin eta egoera baloratu behar dugu. Amaitzean, zerbitzu espezializatuen laguntza behar dutela ondorioztatzuz gero, laguntza hori babes-aukera bat dela azalduko diogu familiari (ez, ordea, mehatxu bat).

Familia elkarrizketatzea (jarr.)

Esan dizuegun bezalaxe, zuen seme-alabak adierazi du/ikusi ahal izan dugu... Eta, horrexegatik, gehiago jakin nahi genuke.

Gurasoek/tutoreek egin ditzaketen galderak

- Konfidentziala izango al da gure elkarrizketa?

Ez da konfidentziala izango ekintzaren bat hartu beharra badago zuen haurra bere ongizatea arriskuan jarri duen egoeraren batetik atera dadin; edo genero-indarkeriako egoera batean balego; edo zuetako edonoren integritatea arriskuan jarri duen egoera batean balego.

- Zergatik nahasten da ikastetxea gure familia-bizitzan?

Zuen haurra babesteko betebeharra dugulako eta, horretarako, zuekin batera lan egin behar dugulako bere egoerak hobera egin dezan/bere egoera konpon dadin.

- Gure familia epaitzen ari zaretela sentitzen dugu.

Ez da gure gogoia. Nahi duguna da zuen haurraren egoera zurekin/zuekin batera baloratzea eta, elkarren artean, biderik onena bilatzea hobera egin dezan.

Lehen zatia

Familiaren datuak (horietako zenbait ikastetxean egon daitezke dagoeneko baina, zenbaitetan, gure erregistroa zuzena dela berrestea komeni da).

- Familiako kideak, izen-deiturak, adinak, hiritartasuna, egoera zibila, lan-egoera.
- Kideren batek desgaitasunen bat al du?
- Osasun mentaleko arazoak?
- Bizitokia. Seme-alaba non dagoen erroldatuta.
- Etxe horretan ere bizi diren edo haurrarekin harreman estua duten beste pertsona batzuk.
- Elkarren artean komunikatzeko erabiltzen dituzten hizkuntzak.
- Egoera juridiko-administratiboa (nazionala, bizileku-baimena, bai ala ez) Ez badute erantzun nahi, ez

behartu.

Egoerari buruz

- Egoera zail edo arazo bat dagoela ulertzen duten ala ez.
- Erantzuna baiezkkoa bada, zailtasuna zein den ulertzen dute eta zer proposatzen dute egoera konpontzeko.

Bigarren zatia

Elkarrizketaren bigarren zati honek izaera erdiegituratua izango du. Jarraian, beren inguruko informazioa edukitzea erabilgarria izan badaiteke ere, halabeharrez galdetu behar ez diren gai ezberdinak (ez osotasunean, ezta ordena horretan ere) aurkituko dituzu. Adibidez, familia-bizitzari buruzko informazioa biltzeko, era irekian egin daitezke galderak: “Nola antolatzen zarete familiaren egunerokotasunean?” eta, ondoren, garrantzitsuak izan daitezkeen, argitu nahi ditugun edo nabarmentzekoak diren gai horiek berriz aipa ditzakegu: “Lanetik zortzietan iristen zaretela ulertu dut; nor arduratzen da zuen seme-alabaz ordura arte?”.

Familia-bizitza

- Nor arduratzen da seme-alaben behar ezberdinez.
- Familia-dinamikaren azalpen laburra, aste barruan zein asteburuan.
- Lan- eta eskola-ordutegiak.
- Harremana familia zabalarekin.
- Inplikazioa garapen akademikoan eta ikastetxearekin duten harremana.
- Familia barruko harremanak, anai-arreben artean, gurasoen artean, gurasoak eta seme-alaben artean.
- Bananduta edo dibortziatuta badaude, nola antolatu da familia eta nola funtzionatzen du antolaketa horrek.
- Nola ulertzen dute beren seme-alabaren hezkuntza. Zer nolako hezkuntza-estrategiak dituzte: zailtasun-egoera zehatzak eta nola egiten dieten aurre deskriba ditzatela.

Familia elkarrizketatzea (jarr.)

Garrantzitsua balitz egoera zehatzerako:

- Elikadurari loturiko ohiturak.
- Lo-ohiturak.
- Aisialdia.
- Gizarte-harremanak.
- Eskura duten babes-sarea.

Haurrari buruz

- Nola ikusten dute etxean? Zer doakio ondo?
- Zer nolako zailtasunak planteatzen ditu?
- Nola izan da bere garapena? Zailtasunen bat egon al da?
- Eskolaz kanpoko jarduerak eta aisialdi-jarduerak.
- Interes nagusiak.
- Jarrera-aldaketaren bat egon bada, noiz eta horri lotuta egon daitezkeen alderdiak.
- Osasun-egoera eta pediatria-azterketak.
- Aurreko eskola-urteen inguruko datuak.

- Haurraren portaera etxean.
- Haurraren egoera emozionalak.
- Lagunak, lagun-taldea, bandak.
- Teknologiaren erabilera; zeintzuk? (Mugikorra, tableta, ordenagailua, kontsolak, sare sozialak, aplikazio eta jokoak); eta, zenbat? (Denbora, uneak egunean); zer nolako arauekin? (arau edo adostasunik badago); eta
- Nola gauzatzen dira?
- Droga, tabako eta alkoholaren kontsumoa.

Beste batzuk

- Planteatu den egoerari aurre egiteko erabiltzen edo erabili izan dituzten zerbitzuak edo bitartekoak.
- Artatu dituzten profesionalak eta horiekin harremanetan jartzeko informazioa (koordinazioa beharrezkoa dela uste badugu, idatzizko beren baimena eta profesionala nor edo nortzuk izan diren jakinaraztea eskatu beharko zaie).
- Garrantzitsuak izan daitezkeen osasun-, psikopedagogia- eta psikiatria-txostenak, etab. (ez eskatu beharrezkoa ez den hori).



● 9. JARDUERA-ILDOA

Aginte eskudunak jakinaraztea

Bi arauk, 1/1996 Lege Organikoak eta 8/2021 Lege Organikoak, edozeinek ezagutu duen haurren aurkako arrisku-, babesgabetasun- edo indarkeria-egoerak eskudunak diren aginteei jakinarazteko betebeharra zehazten dute. 1/1996 Lege Organikoak 13. artikuluan xedatzen du; 8/2021 Lege Organikoak, bestalde, bi komunikazio mota zehazten ditu 15. eta 16. artikuluetan. Generikoa lehena, hiritar guztiei eragiten diena (15. art.); eta, bestea, kualifikatutzat jo dezakeguna (16. art.). Bigarren honek beren kargu, ogibide, lan edo jardura dela eta haurrak eta nerabeak babesteko, hezteko edo zaintzeko ardura duten eta beren eginkizunak gauzatzean horien aurkako indarkeria-egoera baten berri izan duten pertsonaiei dagokie. 16. artikulua komunikazio-prozedura zehazten du. Ezagutu izan diren indarkeria-egoerak edo balizko indarkeria-egoeren zantzuak gizarte zerbitzuei jakinarazi beharko zaizkie. Identifikatutako egoerak haurraren segurtasuna edo osasuna arriskuan jar badezake ere, estatuko segurtasun indar eta kidegoei eta/edo Fiskaltzari jakinaraziko zaizkie. Autonomia erkidegoren batek prozedura hau berezko arauen bitartez arautu du. Horrenbestez, arau horiek kontsultatu beharko dira.

Nolanahi ere, kasu bakoitzean eskuduna den aginteari ere gertatutako guztiaren berri eman behar zaio. Komunikazioa egiteko era administrazio bakoitzak erabakiko du. Garrantzitsua da aginte eskudunekin

harremanetan jartzea, egoera bat jakinarazteko era zuzena kontsultatzeko helburuarekin. Nolanahi ere, kanpoko eragileekin alde aurretik izandako harremanak mesedegarriak dira ikastetxearen esku-hartzerako, egoera zehatz batzuetan gauzatu beharreko esku-hartzearen inguruko orientazioa eskaini baitezakete aipatutako eragileek.

Gogoratu beharra dago, bestalde, haurraren garapena kaltetzen ari den egoera batek arrisku baxua, ertaina, larria edo babesgabetasuna dela erabakitze eskumena gizarte zerbitzuek dutela (Gizarte Zerbitzuen esku-hartzerako garaturiko eskuliburuetan jasotako proposamenen arabera). Ikastetxeak aginte eskudunari gertatutakoa jakinarazteko eskumena du, aurretik aipatutako legeetan jasotzen den bezala.

8/2021 Lege Organikoak dio ikastetxeko zuzendaritzak duela haur edo nerabe baten garapenean eragiten duen edozein egoera komunikatzeko ardura. Ongizaterako eta Babeserako koordinatzaileak komunikazio-betebehar hori betetzen dela bermatu beharko du. Horrez gain, egoeren jakinarazpenak jaso ditzaketen gizarte zerbitzuak eta estatuko segurtasun indar eta kidegoak identifikatuta izan beharko ditu. Honela, 8/2021 Lege Organikoak berresten du emango den erantzunak instituzionala izan behar duela eta ez, ordea, indibiduala.

● 9.1 TRESNA

Gizarte Zerbitzuak jakinarazteko eredua

Zer da?

Jarraian, [Gizarte Zerbitzuak jakinarazteko eredu](#) bat aurkezten da. Eredu hau orokorra da eta gizarte zerbitzuetako edozein jakinarazpenerako erabil daiteke. Ongizaterako eta Babeserako koordinatzaileak oso ondo ezagutu beharko du gertu dituen erreferentziazko gizarte zerbitzuak jakinarazteko sistema. Gizarte Zerbitzuek proposatu duten jakinarazpen-sistema erabiltzeak haur eta nerabeen egoera ezagutzea ahalbidetzen duten estatistikak osatzeko balioko du..

Nola erabiltzen da?

Ongizate eta babeseko koordinazio-eginkizunak betetzen dituen pertsonak bere autonomia erkidegoan edo udalerrian Gizarte Zerbitzuei jakinarazpenak egiteko erabiltzen den inprimakia ezagutu beharko du. Horretarako, koordinatzaile horrek aipatutako jakinarazpen-eredua zein den ikertu beharko du.

Bigarren mailako prebentzio-mailan sartzen dira: alde batetik, indarkeria-egoerak eta/edo haurren ongizaterako arriskuak goiz identifikatzea; eta bestetik, esku-hartzea egoeraren izaeraren arabera diseinatzeko, jakinarazteko eta kanpoko babes-sarea osatzen duten aginte eta erakunde eskudunekin koordinatzeko gaitasunak. Horretarako, hurrekin harremanak dituzten hezkuntza-komunitateko profesional guztiek, jarrera proaktibo eta konprometitua izateaz gain, detekzio-gaitasunerako prestakuntza eta bitartekoak behar dituzte.

Egoera hori aginte eskudunei jakinarazi ahal izateko, legean ezarritako betebeharrak eta zenbait indarkeria motarako indarrean dauden arau eta esku hartzeko protokolo espezifikoak ezagutu behar dira. Bigarren mailako prebentzioko esku-hartzeak errazagoak, irmoagoak eta eraginkorragoak izango dira ikastetxeak, Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearen gidaritzapean, egokiro landu badu lehen mailako prebentzioa, haur guztiei babesa eta zaintza bermatuko dizkien ingurune bat sortzeko beharrezkoak diren baldintzak ezarriz.

Haurrak babesteko lanak ez du etenik. Horrenbestez, indarkeria prebenitzeko baldintzak sortzeaz eta ikastetxeak duen eskumenen barruan indarkeria hori detektatu eta jorratzeko mekanismoak ezartzeaz gain, ikastetxeek biktima diren haurrak laguntzeko betebeharra ere dute, pairatu duten kaltea konpontzeko eta bere ondorioak minimizatzeko, hezkuntza-jardueraren jarraipena bermatzen duten bitartean. Lan horrek Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileak ikastetxeko beste profesional batzuekin eta kanpoko babes-sareko eragile eta bitarteko ezberdinekin batera koordinatu eta gainbegiratu beharko dituen esku-hartze espezifikoak eskatzen dituenean, hirugarren mailako prebentzioaren barruan kokatzen dugu.



Hirugarren mailako prebentzioa

Kaltea gertatu ondoren aktibatzen da, kaltea onbideratzen eta bere ondorioak minimizatzen laguntzeko xedearekin.



Hirugarren mailako prebentzioa

Ikasleak izan behar dira esku-hartze guztien erdigunea. Horrenbestez, hartuko diren erabakiek beren interesak eta eskubideak errespetatu beharko dituzte, beti ere beren ongizatea bilatuz. Ikastetxeak egiten duen lanak ez du etenik, nahiz eta haurra beste bitartekoren batean ere artatua izan, ikasleak ikastetxera etortzen jarraitzen baitu eta zaintza eta babeseko ingurune batean ikasteko eskubidea baitu.

Hirugarren prebentzio-maila honetan, Ongizateko eta Babeseko koordinatzailearen lanak ondoko xedeak izango ditu: koordinazio egokia bermatzea eta onbideratze-prozesuan ikaslea laguntzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzen direla ziurtatzea, ikasleak pairatzen dituen ondorioak arintzen eta ez larritzen laguntzea, estigmatizazioa prebenitzea, ikaslearen heziketaren jarraitutasuna bermatzea eta ikaslea babestera behartuta dauden erakundeek haurra birbiktimizatzen ez dutela ziurtatzea.

Xede horiek lortu ahal izateko, egoera gehiago ez larritzea eta indarkeria-egoeraren eta sorturiko kaltearen kronikotasuna saihestuko duten neurri eraginkorrak koordinatu behar dira, besteak beste:

- Gure esku-hartzearen inpaktua haurraren beharretara egokitzeko neurriak.
- Berehalako atentzioa ezbehar berrien aurrean.
- Laguntza eta jarraipena.
- Inplikaturako eragileak koordinatzea, ikastetxearen barruan eta ikastetxetik at.
- Konfidentzialtasuna bermatzea.

Garrantzitsua da ikasleak laguntzeko xedearekin garaturiko neurrien edo jardueren inpaktua egokiro baloratzea eta estigmatizazioa, bazterketa edo birbiktimizazioa eragiten ez dutela baieztatzea.

Birbiktimizaziotzat hartzen da indarkeria- edo abusu-egoeraren bat pairatu duen pertsona bati sistemak (edo pertsonak) eman dion erantzuna, baldin eta erantzun horren ondorioz biktimak egoera traumatikoa berriz bizitzen badu, berriro ere biktima bilakatuz, zuzenean ez bada ere, sistemak, inguruneak edo, kasu honetan, ikastetxeak berak eman dion erantzunaren ondorioz.

Estigma, haurren aurkako indarkeriaren testuinguruan, pertsona edo pertsona-talde bati esleitzen zaion eta pertsona horiekiko jarrera edo erantzun negatiboak edo baldintzatuak dakartzan ezaugarri edo berezitasunei lotuta dago.



Oso garrantzitsua da indarkeriaren biktimek kalte berririk edo errepikatutako kalterik pairatzen ez dutela bermatzea.

● 10. JARDUERA-ILDOA

Ikasleentzako laguntza

Hirugarren mailako prebentzioaren helburuak bete ahal izateko, lehenik eta behin, laguntza-plan bat garatu beharra dago, prozesuan lagun dezaketen eskola-komunitateko kide guztiak inplikatur. Horretarako, orientazio-taldeen, tutoreen edo interes bereziko beste edozeinen inplikazioa bilatuko da, laguntza-plan integral bat garatzeko. Gure ustez, garrantzitsua da, ahal dela, familiaren, haur edo nerabearen beraren eta laguntza ematen ari diren kanpoko zerbitzuen parte-hartzea ere bermatzea. Haurraren kasuan, ikaslearen garapen-maila aintzat hartu beharko da bere inplikazioa izango duten gaiak erabakitzeko. Plan hori esku-hartzearen ardatz nagusia izango da eta, plana oinarri hartuta, beste esku-

hartze batzuk ere abiaraziko dira. Planak eragile ezberdinen esku-hartzea zehaztuko du, egoeraren balizko ondorioak minimizatzeko helburuarekin eta/edo birbiktimizazioa eta estigmatizazioa prebenitzeko eta heziketaren jarraitasuna bermatzeko.

Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileak esku-hartzeak era koordinatu, adostu eta koherentean gauzatzen direla ziurtatu beharko du, haurraren ongizatea bermatzeko. Nahitaezko baldintza bat da haurrak entzutea. Haurrek eragiten dieten erabaki guztien inguruan iritzia emateko, entzunak izateko eskubidea baitute.

● 10.1 TRESNA

Laguntza-plana

Zer da?

Jarraian, laguntza-planerako eredu bat proposatzen da. Eredu hori kasuaren baldintzetara egoki daiteke. Ereduak laguntza-prozesua planifikatzeko aukera ematen du, jarraipena eta esku-hartzeen koherentzia errazteko.

Nola erabiltzen da?

Planaren garapenean ondokoek hartu beharko dute parte: erantzukizuna edo esku-hartze zuzena duten profesional ezberdinek, familiak eta, heldutasun mailaren arabera, haurrak ere bai. Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileak planaren betetzearen eta bere emaitzen eta haurraren ongizatean duen eraginaren etenik gabeko jarraipena egiteko ardura dauka.

Familiarekin batera egingo diren esku-hartzeak aztertzeaz gain, koordinazioa planifikatu beharra dago inplikatur dauden beste erakundeetako profesionalekin, lan-helburuak eta, zehazki, ikastetxeak egoera zehatz horretan izan dezakeen papera adostuz. Bestela, plana ez litzateke plan koherentea eta koordinatua izango. Inplikatur dauden kanpoko erakundeetako eragileekin batera lan ez egiteak informazio-falta ekar lezake, bai eta kanpoko zerbitzuek familiarekin garatzen ari diren esku-hartzearen

helburuen aurkakoak izan daitezkeen neurrien ezarpena eragin ikastetxearen aldetik.

Laguntza-planeko eredu honek helburuak, arduradunak eta mantenduko diren bilerak jasotzen ditu. Halaber, hartuko diren neurriak eta laguntza-ekintzak ere zehaztu beharko dira. Laguntza-ekintzei dagokienez, ikastetxeak ikasleari laguntzeko xedearekin har ditzakeen horiek dira (esaterako, ikaslea eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzera bultzatzea).

Ikastetxeak ezar ditzakeen neurrien artean daude:

- Hasierako neurri orokorrak.
- Babes- eta segurtasun-neurriak.
- Laguntza emozionaleko neurriak.
- Beste jarduketa batzuk, egoeraren edo ikaslearen larritasunaren/berezitasunaren arabera.

Ikasleari laguntzeko plana

Diseinu-data:

Diseinuan inplikaturako profesionalak:

Berrikuspen-data:

Oinarrizko informazioa, plana osatzeko

1. Ikaslearen datuak:

2. Ikasmaita

3. Planaren helburuak:

Adibideak:

- Obserbazio eta behatzea sistematizatzea erabakiak hartu aurretik, hala nola ikasleari, pertsonen arteko harremanei, egoera emozionalari eta antzekoei buruzko erabakiei dagokienez..
- Maila edo ikaslearen ongizaterako arriskutsuak diren jarduerak zehaztea eta neurri arintzaileak gauzatzea.
- Ikaslea edo bere ikaskideak zaintzeko, artatzeko eta gainbegiratzeko neurriak ezartzea.
- Harremanetarako eta informazioa trukatzeko konpromiso bat lortzea familiarekin eta espezializatutako kanpoko zerbitzuekin.
- Egoeraren berri izan behar duten irakasleei ezinbesteko informazioa helarazteko plana zehaztea.

- Neurri berriak hartzeko aplikatzen diren irizpideak azaltzea.

- Beste batzuk.

4. Planaren arduradunak:

- Koordinazioa.
- Ekintzak gauzatzea.
- Harremana familiarekin (pertsona bat edo bi identifikatzea, nahasteak saihesteko).
- Harremana kanpoko zerbitzuekin.

5. Jarraipena (jarraipen-bilerak programatzea).

- Barne-mailakoak.
- Guraso/tutoreekin.
- Kanpoko zerbitzuekin.

6. Behatzeko, informazioa biltzeko eta erabakiak hartzeko eremuen gidoia:

- Aurrekariak: informazioa biltzea:
- Biltzeke dagoen informazioa:

7. Ohar garrantzitsuak:

- Arrisku-adierazleak:
- Babes-adierazleak:
- kaslearekin eta ingurunearekin landuko diren lehentasuneko arloak:

8. Hartu beharreko neurriak:

Ekintzak	Arduradunak	Noiz hasiko dira? Noiz amaituko dira?	Nortzuk egon behar dute jakinaren gainean?	Iruzkina/bilakaera

9. Ikasleari eman beharreko laguntza

Ekintzak	Arduradunak	Nortzuk egon behar dute jakinaren gainean?	Iruzkina/bilakaera

● 10.2 TRESNA

Birbiktimizazioa eta estigmatizazioa ulertzeko eta ekiditeko gida

Zer da?

Informazio-gida bat da eta ekintza-adibideak eskaintzen ditu ikastetxeak berak bultzatzeko birbiktimizazioa eta estigmatizazioa saihesteko neurriei dagokienez.

Kasu zehatza aztertu beharra dago beti: egoera batean aplika daitekeena kaltegarria izan daiteke beste egoera batean.

Nola erabiltzen da?

Laguntza-plana garatzeko gida hau erabil daiteke, birbiktimizazioa eta estigmatizazioa prebenitzeko. Koordinatzaileak gida hau ikastetxeko beste profesional guztiekin partekatuko du. Halaber, laguntza eskainiko die profesional horiei, haur eta nerabeekin dituzten hartu-emanak eta beren erabakiak eta jarduketak orientatzeko.

Bigarren eta hirugarren mailako birbiktimizazioa eta estigmatizazioa ulertzeko eta ekiditeko gida laburra

Egoera	lan-tresna lan-tresna lan-tresna lan-tresna lan-tresna lan-tresna lan-tresna lan-tresna
Haurren aurkako indarkeria-egoera familiarren barruan, Gizarte Zerbitzuen esku-hartzearekin	- Egoerak haurraren jokabidean duen inpaktua alboratzea edo minimizatzea. - Egoeraren inguruko zurrumurruak eta gezurrak hezkuntza-komunitatean. - Haurra eta familia estigmatizatzea.
Genero-indarkeria	- Zalantzan jartzea, ez sinestea. - Haurra egoera ezkutatzera edo gaiaren inguruan gezurrak esatera behartzea. - Errua biktimari leporatzea. - Estigmatizatzea.
Buruko osasuneko arazoa	- Ikastetxea uztera bultzatzea. - Nahasmendua oinarri hartuta, beste zailtasun batzuk justifikatzea. - Inplikatura dauden kanpoko eragileekin batera lan egiteari uko egitea. - Arazoa publiko egitea.
Eskola-jazarpena	- Arretarik ez eskaintzea. - Errua pairatzen duenari leporatzea. - Konfidentzialtasuna eta pribatutasuna ez zaintzea esku-hartzean zehar.

Estigmatizazioa prebenitzeko ekintzak

- Diskrezioz aritzea, ikaslea seinalatuta sentiarazi gabe.
- Jarduteko erari buruzko argibideak ematea eta informazio zehatzik ez ematea egoeraren inguruan.
- Konfidentzialtasuna mantentzea eta beharrezko informazioa besterik ez partekatzea, eta beharrezko eragileekin soilik.
- Ez seinalatzea edo identifikatzea.
- Arreta ikasleak dauzkan arazoetan jartzea (arreta-zailtasunak, adibidez), arazoa bera dela sentiarazi beharrean.
- Ikaslea naturaltasunez tratatzea, ikasgelako beste guztiak bezalaxe.
- Eskuragarri egotea eta konfiantzazko pertsonak identifika ditzan eskatzea, hitz egiteko beharra duenerako.

● 11. JARDUERA-ILDOA

Koordinazioa beste erakunde publiko batzuekin, jarraipena ziurtatzeko

Eragile ezberdinen arteko koordinazioa funtsezkoa da ikasleari babes integrala eman ahal izateko. Ikastetxeak jakinaren gainean egon behar du bertatik kanpo gauzatzen ari den lanari eta esku-hartzeari dagokienez.

Egoera hezkuntza-arloa ez den beste arlo batetik lantzen ari badira ere, ahalik eta laguntzarik handiena eman beharko da kaltearen inpaktua murrizteko eta helburu osagarriak dituzten jarduketak gauzatzeko.

Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileak babes-sare zabal eta irmoa eduki beharko du bere esku, babesaren arloan eskumenak dituzten erakunde ezberdinetan (gizarte zerbitzuak, osasuna, polizia, edo justizia, besteak beste). Halaber, barne-mailako laguntza-sare eta -antolakuntza bat ere beharko du ikastetxeko eta hezkuntza-arloko (zuzendaritza, hezkuntza-orientabiderako taldeak, tutoretza, hezkuntza-ikuskaritza, besteren artean) beste profesional batzuekin.

Xedea da ikastetxeko hezkuntza-komunitate osoa inplikaturiko duen barne-mailako sare bat eta haurrak babesteko ardura duten beste eremu guztiak bildu eta familia eta zonaldean eskuragarri dauden bitarteko orokor eta espezializatu guztiekin koordinaturiko dituen beste kanpo-sare zabal bat ezartzea.

Informazioaren trukea beharrezko eta arrisku-mailarekiko proportzionala izango da eta bere helburua izango da inplikaturiko beste eragileen lana eraginkorra egitea eta informaturiko erabakia hartzeko aukera ematea aipaturiko eragileei. Informazio-fluxu hori ondoko printzipioek ardaztuko dute:

Egokia

Esku-hartzearen xederako garrantzitsua den informazioa besterik ez da partekatuko, eta esku-hartze hori ezagutzeko beharra duten pertsonekin baino ez.

Zehatza

Informazioak argia eta zehatza izan behar du. Datuak igarotako edo egungo jazoerei lotuta ote dauden adierazi beharra dago. Gertakariak, interpretazioak eta usteak/iritziak argi eta garbi bereizi behar dira.

Aproposa

Informazioa aplikagarria den denboran eta moduan aurkeztu behar da, laguntza emateko eta haurrak babesteko aukerarik ez galtzeko. Egoera larriaren, oso garrantzitsua izango da informazioa azkar trukatzeko. Nolanahi ere, informazioa arretaz partekatzen dela bermatu beharko dute profesionalak.

Segurua

Esfortzu guztiak egin beharko dira informazioa egokiro eta era seguruan partekatzeko. Informazio pertsonalaren maneiuari eta datuen babesari buruz indarrean dauden legeak bete beharko dira beti.

Erregistratua

Informazioa trukatzeko erabakia erregistratu egin beharko dira. Erabakia partekatzeko bada, horretarako arrazoiak aipatu beharko dira, partekatutako informazioa eta zeinekin partekatuko den barne, antolakuntza-prozedurei jarraiki. Erabakia ez partekatzeko bada, jardunbide egokia da erabaki horren arrazoiak partekatzeko eta eskaera egin duen pertsonarekin eztabaidatzea. Informazioa beharrezko denboran baino ez da gordeko. Epe erregularretan programaturiko berrikuspen-prozesu bat egon beharko du ezarrita, dagoeneko beharrezkoak ez direnean, datuak oraindik gordeta ez daudela bermatzeko.

Arreta berdina jarri beharko da beste eragile batzuek bidalitako informazioa jasotzerakoan. Informazioa ez bada beharrezkoa dagokion haurrari edo nerabeari babesa emateko, informazioa ez jakinarazteko eskatuko zaio pertsona horri. Kanpoko erakundearen koordinazio-eskari guztiak idatziz eskatu beharko lirarteke. Honela, erregistratuta geratuko direlako eta esku-hartzearen parte hartuko duen pertsonaren nortasuna/adskripzio profesionala ziurtatuko delako. Telefonoz informazioa ez ematea gomendatzen da, solaskidea iturri fidagarria edo konfiantzazko kontaktua izan ezean. Bereiziki arduratsua izan beharko da kasuari loturiko indarreko justizia-prozedurak edo urruntzeko aginduak daudenean.

● 11.1 TRESNA

Kanpo-koordinazioko fitxa

Zer da?

Txantiloï-proposamen bat aurkezten da, kanpoko erakundeekin izandako koordinazio-prozesuak erregistratzeko. Ikastetxearen behar zehatzetara egoki daiteke, bai eta koordinazio hauek erregistratzeko moduei buruzko beste informazio-iturri batzuk erabiliz osatu ere. Koordinazioaren egokitasuna, gardentasuna eta egokitzapena bermatzen laguntzen du fitxa honek.

Nola erabiltzen da?

Fitxa proposatutako oharrei jarraiki bete behar da, koordinazioaren beste eragileak diren profesionalak identifikatuz. Halaber, koordinazioaren xedeari eta partekatu den informazioari buruzko datuak ere jaso beharko dira. Fitxa hau oinarria izan daiteke koordinazioa planifikatzeko eta etorkizunerako erregistratuta geratzeko, beharrezkoa balitz, partekatu edo berriz ere erabili ahal izateko.

Kanpo-koordinazioko fitxa

Koordinazioan inplikaturiko erakundeak/profesionalak	
Izena	
Kargua	
Bitartekoa	
Izena	
Kargua	
Bitartekoa	
Izena	
Kargua	
Bitartekoa	

Koordinazioaren xehetasunak
Data
Komunikatzeko metodoa
Koordinazioan inplikatutako beste profesional batzuk:
Koordinazioaren xedea:
Partekatutako informazioa:
Akordioak, arduradunak eta egutegia

Hirugarren mailako prebentzioak kaltea gertatu eta gero erantzuten du. Bere xedea da kalteak haurraren bizitzan izango duen inpaktua minimizatzea eta beharrezko baldintzak sortzea haurraren eskubideak eta ongizate-mailarik altuena bermatzeko. Prebentzio-maila honetan, ikastetxeak laguntza eskaini behar du haurraren ongizate sozioafektiboaren mantentzea bultzatzeko. Halaber, egoeraren jarraipena egin behar du, eta hezkuntza-prozesuaren etena eta birbiktimizazioa —estigmatizazioa eta bazterkeria barne— saihestu. Azken xedea da kaltetua izan den haurrari bizitza ahalik eta normaltasun handienarekin garatzen laguntzea ikastetxean. Horretarako, beharko duen babesa eskainiko zaio.



Epilogo

Ongizateko eta Babeseko eginkizuna koordinatzeko lanak berebiziko garrantzia dauka hezkuntza-komunitate osoak indarkeriarik gabe bizitzeko haurrek duten eskubidearen alde lan egin dezan. Koordinatzailearen irudia ezarri eta martxan jartzeko gutxieneko baldintza batzuk bermatu beharko dira, aurreikusitako helburuak betetzeko gai izan dadin. Baldintza gaitzaile horiek ez egoteak arriskutsua izan daiteke ikastetxeak ordeztuko dituen erakundeetarako eta, halaber, haurren eskubideak ezbaian jar ditzake. Ongizateko eta Babeseko koordinatzaileek beren eginkizuna eraginkortasunez bete dezaten, ezinbestean, bitarteko nahikoak jaso beharko dituzte: trebakuntza-materialei zein aholkularitza eta laguntzari dagokienez beren babes-eginkizunerako. Hezkuntza-komunitateko profesional eta kideak eta kanpoko babes-sareko aginteak bilduko dituen adostutako esku-hartze bat bermatu ezean, 8/2021 Lege Organikoak jasotzen duen eginkizun honek ez du bere potentzialik handiena lortuko haurrak zaintzen eta babesten laguntzeko eta ez du ekarpen esanguratsurik izango indarkeriarik gabeko bizitza bat bizitzeko haur guztiek duten eskubidearen bermatzean, arriskuak minimizatuz eta ongizate-mailarik gorenenak sustatuz.

Haurrak eta nerabeak babesteko eta zaintzeko lanak eragin negatiboa izan dezake gure bizitza pertsonalean zein gure osasun emozionalean. Horrenbestez, profesionalak zaintzea nahitaezko baldintza bat da beren lanaren kalitatea hobetzeko. Administrazio publikoek trebakuntza gaitzaileko prozesuak, laguntza, zaintza eta autozaintzarako lan-tresnak eta bitartekoak diseinatu eta finantzatu behar dituzte eta, jarraian, legeak agindutakoari jarraiki ikastetxeetan Ongizateko eta Babeseko eginkizunaren koordinazioaz arduratuko diren pertsonen esku utzi. Hezkuntza-arloan, haurren babesak ezin du profesionalen nahien eta gaitasun indibidualen mende egon. Legeak erantzun instituzional bat eskatzen du indarkeria eta arrisku-egoerak prebenitzeko eta egoera kaltegarrien biktima diren haurrak babesteko. Hezkuntza-arloak ingurune babeslea izan behar du ikastetxera bertaratzen diren haur guztientzat.

Gida hau Ongizateko eta Babeseko koordinatzaile izendatuak izan diren profesionalen lana orientatzen lagungarri izango delakoan gaude. British Council eta UNICEF Espainiak agintariekin, profesionalekin, hurrekin beraiekin eta familiekin batera lan egiten jarraituko dute, haur guztientzako seguruak eta babesleak izango diren hezkuntza-inguruneak sortzeko.

Erreferentziak

- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babestekoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 134. zk., 2021eko ekainaren 5a. <https://www.boe.es/eli/es/lo/2021/06/04/8/con>
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 106. zk., 2021eko maiatzaren 4a. <https://www.boe.es/eli/es/lo/2006/05/03/2/con>
- 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituen. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 15. zk., 1996ko urtarrilaren 17koa. <https://www.boe.es/eli/es/lo/1996/01/15/1/con>
- UNICEF (2022). Haurrak eskola-ingurunetik babestea. Ongizateko eta Babeseko koordinatzailea. Haurrak eskola-ingurunetik babestea. UNICEF.

**Ikastetxetan haurren
ongizatea eta babesa
sustatzeko lan-tresnak**

Laguntzailea:

 **PORTICUS**